



Euskal Herriko Unibertsitatea



MUTRIKUKO EUSKARAREN ERABILERA DATUEKIN JOLASEAN, ETA AURRERA BEGIRA ZER?

-Sakontze egitasmoa-

HIZNET- HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA

Ikaslea: Beñat Urkiza Sesma

Zuzendaria: Iñaki Martinez de Luna Perez de Arriba

Donostia, 2015eko uztaila

Eskerrik asko;

Iñakiri etengabeko laguntzagarik eta pazientziagarik;

sofatik altxatu eta telefonoa hartu zuten guztiei;

egunero isilean ezerean truke herrian lanean dabilen jende parte hartzaileari eta

ekintzaileari;

eta, azkenik, adituei borobiltzeagarik.

AURKIBIDEA

0.- LABURPENA	3
1.- SARRERA	4
2.- MARKO TEORIKOA	4
2.1. Euskararen erabileran eragin dezaketen faktoreak	5
2.2. EAEko euskararen ezagutzan azken 30 urtetako bilakaera	8
2.3. Mutrikuko euskararen kale erabileraren emaitzak	15
2.4. Begira prospekzioa	18
3.- METODOLOGIA	20
3.1. Metodologia kuantitatiboa	20
3.2. Metodologia kualitatiboa	21
3.3. Lagina	23
3.3.1. Telefonozko inkesta	23
3.3.2. Eragileentzako eta taldeentzako inkesta	25
3.3.3. Aditu taldearen solasaldia	25
3.4. Laneko eremu geografikoa eta demografia	25
3.5. Datu bilketa	28
4.- EMAITZAK	30
4.1. Telefonozko inkestaren emaitzak	31
4.1.1. Emaitzak adin tarteen eta generoaren bidez aztertuta	31
4.2. Eragileen eta taldeen inkestaren emaitzak	37
4.3. Aditu taldean esandakoak	44
4.3.1. Pertzepzioa	44
4.3.2. Ikerlaneko emaitzak	45
4.3.3. Hutsuneak	46
4.3.4. Proposamenak	47
5.- ONDORIOAK	48
6.- BIBLIOGRAFIA	50
7.- ERANSKINAK	51

0.- LABURPENA

Ikerlan hau Mutrikuko herrian kokatzen da. 2014ko iralean Soziolinguistika Klusterreko kide batek, Mutrikuko Udalak aurretik eskatutako euskararen kale erabileraren datuak aurkeztu zituen.

Datu horietan oinarrituta, adin eta genero desberdineko herritarrek eta kultur talde anitzetan lanean ari diren kideek Mutrikuko euskararen egoeraz zer pertzepzio duten jaso da.

Horrez gain, aditu talde baten laguntzaz, herritar eta taldeetako kide parte hartzaileek esandakoaz hausnartuko da. Bukatzeko, aurrerantzean, Mutrikun euskararen ikuspegitik landu beharko liratekeen oinarrizko lan ildoak zehazten saiatu da.

Hortaz, lan honen helburua da, datuek eta hausnarketek esandakoa kontuan hartuta, udal batek izan beharko lukeen euskara plan baten aurre diagnosia egitea da.

Hitz gakoak: erabilera, herritarrak, parte hartzea, proposamenak, lan ildoak

1.- SARRERA

Mutrikuko biztanleek urteak pasa ahala, euskararen inguruko datu asko entzun eta ikusi izan dituzte.

Lan honetan datu horrek hartu eta herritarrei galdetu zaie, ea 2014ko irailean aurkeztutako euskararen kale erabilerari buruzko datuez zer pentsatzen duten.

Ikerlan honen helburua da pertzepzio eta sentsazio horiek baliatuta, euskara plan baten aurre plangintza egitea.

Helmuga horretara iristeko bide luzea egin behar izan da, eta emaitzak lortzeko teknika bat baino gehiago baliatu da, esaterako: alde batetik, lanaren lehenengo zatian, inkesta desberdinak; eta, bestetik, lanaren bigarren zatian aditu taldearen solasaldia.

Datuak lortu eta gero, ikerlanean ez dira hipotesiak baieztatu edo ezeztatu; funtsean, argazki desberdinen deskribapenak egin dira.

Horretarako, inkesta desberdinen bidez 360 lekuko eta herriko 8 talde parte hartzaileen kolaborazioa behar izan da. Horrez gain, pertzepziozko datuak interpretatzeko, aditu talde baten laguntza ere behar izan da.

Bukatzeko, bai emaitzetatik, bai aditu taldeak proposatutako ideietatik lanari bukaera eman zaio. Ondorioetan herriko euskararen aurreplangintzan landu litezkeen ideiekin eta hausnarketekin bukatzen da ikerlana.

2.- MARKO TEORIKOA

Marko teorikoaren atalean, ikerlana datuez babesteko behar diren aipiak eta lotura lanak aipatuko dira. Horretarako, gaia euskararen erabilera datuak kontuan aurre plangintza bat egitea denez, helburu hori lortzeko teoria desberdinak eta esperientzia anitzak erabili behar dira.

Hori horrela izan dadin, atal hau lau ataletan banatzea erabaki da. Lehenengo atalean, Martinez de Lunaren (2015) lanean agertzen diren euskararen erabileran eragin dezaketen faktoreen azalpena egingo da; bigarrean, euskararen ezagutza erdigunean jarrita, Iurrebasoren (2014) lanean EAEn azken 30 urtetan euskarak izan duen bilakaeraren informazioa zabalduko da; hirugarrenean, ezagutzatik erabilerara igarota, Soziolinguistika Klusterrak (2014) Mutrikun egindako kale erabileraren emaitzak aipatuko dira; eta, azkenik, Mutrikun aurrerantzean gertatu daitekeenaren argazki gisa, Begira prospekzioaren datuak ere aipatuko dira.

2.1. Euskararen erabileran eragin dezaketzen faktoreak:

Euskararen erabileran faktore askok eragin dezakete eta izenburu hori bera duen artikuluan azaltzen saiatzen da Martinez de Luna (2015). Artikuluan eragin desberdina izan dezaketzen ezaugarri asko aipatzen ditu. Atalak bata bestearen atzetik azalduta lantzen dituen gaietako batzuk ondorengoak dira: plangintza baten antolaketaren arabera erabileran eragin dezake, sozializazio moduak ere aldaketak ekarri ditzake eta horiez aparte, beste faktore batzuk ere badaudela dio. Ondorengo lerroetan, garrantzitsuenak ekarriko dira gogora.

Euskararen eta beste hizkuntzen transmisioan etxeko hizkuntzak edota gurasoak emandako hizkuntzak garrantzia handia duela ikusi izan da. Halere, azken urtetan, ama-hizkuntza deitu izan denaren funtsezkotasuna goraiatzeaz gain, azpimarratu da, gaur egun, lehen hizkuntza deitzea egokiagoa dela. Aldaketa hori eman da lehen eta oraingo ikusmoldea ez delako berdina. Antzina, hizkuntza etxean jasotzen zen eta, seguruenik, amak emanda, beraien hurbiltasun eta heziketa rolaengatik. Gaur egun, aldiz, lehen hizkuntza deitzen zaio haurrek jasotzen duten lehen hizkuntzari, hein handi batean ez delako amak edo gurasoek emandakoa bakarrik. Emakumea merkatuan sartu eta lan ordainduak egiten hasteaz batera, umeei jaso duten hizkuntza ere aldatu egin da: etxekoa eta haurtzaindegikoa, etxekoa eta aiton-amonena, hizkuntza bat baino gehiagokoa... Hortaz, hizkuntzaren jabekuntza arlo batek baino gehiagok osatu dezakete. Jabekuntza plangintza batekin antolatua izan daiteke edota etxean jasotzen den planifikatu gabea.

Planifikatu gabeko transmisioaren ardatz gisa autore desberdinek sozializazioa aipatzen dute. Paula Casaresek horrela definitzen du sozializazio kontzeptu orokorra: *haurrari edo heldu hasiberriari komunitate jakin baten gizarte bizitzan eraginkortasunez eta egoki parte hartzeko beharrezkoak diren ezagutzak, joerak eta jarduerak eskuratzea ahalbidetzen dion prozesua da.* (Casares, 2013: 32). Bestalde, orokorraz gain, Casaresek hizkuntzan oinarritutako definizioa ere ematen du: *"...hizkuntzaz jabetzea eta taldeko partaide bihurtzea elkarri atxikitako prozesuak dira."* (Casares, 2013: 33). Autore horrek hizkuntza sozializazioa, sozializazio orokorraren barruko adar bezala ikusten du.

Horrez gain, gizakia jaiotzeko orduan, kontzeptu batek dio, pertsona ez dela komunitatea eta hizkuntza batekin jaiotzen hori etengabe garatzen joan behar den kontzeptua dela. Gizaki bat jaiotzean eta ematen dituen pausuen arabera, desberdina izan daitekeela diote. Giddens (2007) eta Martinez de Luna (2009) lanetan gizakien lehen pausuen sailkapena eta ondorioak agertzen dira. Ondorengoak dira puntu esanguratsuenak:

Mutrikuko euskararen erabilera datuekin jolasean, eta aurrera begira zer?

Sakontze Egitasmoa

Beñat Urkiza Sesma, 2015eko uztaila

- Prozesu luze eta egunerokoaren bidez gizakiak gizarteko kide egiten dira.
- Gizakiak bere izaera eta hizkuntzaren jabeakuntza taldearen babesaz osatzen du.
- Gizakiak hizkuntza ikasi eta helarazteko gaitasuna du eta erabiliaren erabiliz, komunikatu egingo da.
- Gizakia etengabeko hazkuntzan egon behar da. Ez bakarrik hazkuntza pertsonalean, talde kontzeptua ere kontuan izan behar dute.
- Gizakiak momentu jakin batean izan dezakeen ahuleziak talde babesaren bidez gailentzen ditu.
- Munduan dauden kultura eta hizkuntza desberdinengatik sozializazioa ere desberdina izango da.

Aurreko irizpideak sozializazio eredu batek kontuan hartzen dituenak dira, jakina da beste eskola eta korrante batzuk ere badaudela.

Autore batzuen arabera, balio kulturak garrantzitsuenak hizkuntza jabeakuntzaren bidez barneratzen dira. Hizkuntza sozializazioa orokorraren adar batenez, hizkuntza jabeakuntzak toki askotatik edaten du. Irizpide batzuk hurrengoak dira:

- Sozializazioa modu informal batean ematen da eta funtzionamendua ulertzea da helburua. Balioak barneratzen dira.
- Gizakiak balioak barneratzearekin batera, jarrerak eta portaerak ikasten ditu.
- Sozializazioan <ni> mailatik <gu> mailarako saltoa ematen da. Gizakitik giza komunitatera.
- Bilakaera horretan norbanakoak gizartea ulertu eta bertan biziraun behar du.
- Elkarbizitzan eta hizkuntza berdina duten gizakiekiko hurbiltasuna eta atxikimendua sortzen da.
- Gizakia talde funtzionamenduan trebatzeak norbanakoaren biziraupena bermatzen du.
- Sozializazioa etengabekoa da, ez du etenik.

- Sozializazioaren bitartez balioak eta edukiak barneratzen diren heinean, aldaketak ere egin daitezke.

Puntu horiek barneratzearekin batera, inguruan eragiteko borondate du gizakiak. Gizartea eta hizkuntza batera doazenez, eraldaketak bi esparrutan ematen dira.

Hizkuntzaren ikaskuntzan eta gizartean txertatzeko prozesu horretan, sozializazioak etapa desberdinak dira. Funtsean hiru izango dira banatzen diren atalak:

- **Lehenengo sozializazioa:** Haurtzarokoa eta funtsezkoena. Gizarteko oinarrizko kategoriak zehazten dira. Pertsona erreferenteen bidez egiten da sozializazioa modu afektibo eta hurbil batean.
- **Bigarren sozializazioa:** Familiatik aparte ematen den sozializazioa da. Nerabezaroan hasten da eta trebezia desberdinak barneratzen dira.
- **Hirugarren sozializazioa:** Pertsona helduek ikasi dutena baztertu eta beste kultura bati heltzen diotenean. Transkulturazioa deitzen zaio horri eta guztiz bestelakoa den gizarte bateko balore eta balioak barneratzen direnean gertatzen da. Bilakaera nahita edo derrigorrean pasatzen denean gertatzen da.

Sozializazioaz gaindi, horrek eragina du euskararen erabileran. Eragiketa guztietan faktoreek eragina duten bezala, euskararen kasuan ere horrelakoak gertatzen dira. Sozializazioa zer den eta beraren garrantzia azpimarratu eta gero, horrek erabileran izan ditzakeen aferak azalduko dira.

Autoreak dioenez, hizkuntza bat bereganatutakoan hurrengo pausua hizkuntza hori erabiltzea izaten da. Edozein kasutan, komenigarria izaten da erabilerearen parametroen nondik norakoak ezagutzea.

Martinez de Lunak, Suberbiolak eta Basurtok (2009) eskoletako ikasleen erabilerearen bermeak zeintzuk ziren neurtu zituzten ingurune elebidun eta eleanizetan. Horretarako, hiru maila desberdin zituzten: norbanakoen maila, makrosoziala eta mikrosoziala. Hirurak ez daude bata bestetik bananduta, baizik eta bata bestearen atzetik osatzen den bidea da.

- **Makrosoziala:** aritzeko guneari dagokio eta egoeretatik haratagoko uneak dira. Nagusiki hiru egoerez dago osatua: gizarte babes, estatus juridikoa eta hizkuntza politika.

Gizarte babes da funtsezkoena, hizkuntza batek babes sozialik gabe ez duelako ibilbide luzerik. Euskararen kasuan, babes hori nahiko

onartua dago gizartean. Babesaz gain, hizkuntza batek legedia eta araudia izan behar du garatuta. Euskal Herrian gertatzen den bezala, lurralde bakoitzean euskarak duen araudi judizialaren arabera trabak sortu ditzake hizkuntza politikan eta plangintzan.

- **Mikrosoziala:** Fishman-ek (1979) definitu zuen lez, egoeretan oinarritzen dira eta hiru atal ditu: harreman funtzionala, kokapena eta denbora tartea. Erabilera atal honetan gertatzen da, beste bie lehentasuna kenduz. Erabilera gerta dadin, egoerak hiru baldintza bete behar ditu: hizkuntza gaitasuna, solasaldiaren trinkotasuna eta hizkuntza hautua egiteko parada. Horiez gain, Amonarrizek (1991) beste hiru ere aipatzen ditu: hizkuntza bere hitz egiten duten pertsona egotea, aritzeko gaitasuna eta talde gaitasuna izatea.
- **Norbanakoa:** Bi osagaik osatzen dute: gaitasun erlatiboa eta motibazioa. Egoera gutxituan dagoen hizkuntza baten hiztunak bietatik nahiko behar du hautaketa egiteko orduan. Oreka bat aurkitu behar da gaitasuna eta motibazioaren artean. Zenbait kasutan, bietako bat gabe edota oreka okerrarekin, ezingo da gauzatu solasaldia. Bestalde, gaitasuna izan edo ez, motibazioak bakarrik ez dakar erabilera. Kanpo faktoreek euskararen kasuan albo kalteak sor ditzakete.

2.2 EAEko euskararen ezagutzan azken 30 urtetako bilakaera:

Martinez de Luna (2015) lanean euskararen erabilerak izan ditzakeen oztopoak eta guzti horretan sozializazioak duen garrantzia agertu dira. Iñaki Lurrebasok (2014), azken hogeita hamar urtetan, guzti horren bilakaera nolako izan den deskribatu du. Hau da, Lurrebasok lan horretan euskarak izan duen ibilbidea erakutsi du; horretarako, EAE-ko herri guztietako datuak hartu eta deskribapen bat egin du. Nafarroako eta Iparraldeko datuak ez dira lanean sartu, EAE-ko datuekin alderatuta, desberdinak direlako edo ez daudelako.

Lurrebasok datuak EUSTAT plataformatik hartu ditu eta herri euskaldun eta ez-euskaldunen arteko bereizketa UEMA-ren irizpideen arabera banatu du; hots, euskararen indizea %70-etik gorakoa izatea.

$$\text{Euskararen indizea} = \text{Euskaldunen \%} + (\text{Ia euskaldunen \%} / 2)$$

2011-ko datuen arabera, euskara indizea betetzen zuten herri euskaldunen barruko datuak ondorengoak dira:

- EAE-ko herri guztietatik erdiak dira euskaldunak (126 herri).
- Udallerri horietan 335.729 biztanle daude, EAE osoaren %15,4.

Mutrikuko euskararen erabilera datuekin jolasean, eta aurrera begira zer?

Sakontze Egitasmoa

Beñat Urkiza Sesma, 2015eko uztaila

- Herri horietako euskaldunak 235.019, EAE-ko euskaldun guztien %29,8.
- 335.729 biztanletatik %67 Gipuzkoan bizi dira, %32,5 Bizkaian eta gainerakoa %0,5 Araban.
- EAE-ko lau eskualde dira guztiz euskaldunak: Gernika-Bermeo, Lea-Artibai, Tolosaldea eta Urola Kosta.


Udalerrri euskaldunen barruan, gainontzekoetatik desberdintzeko, ezaugarri zehatz batzuk dituztela dio egileak. Datu demografikoen aldetik badira zenbait faktore, nagusiena gehienak herri txikiak direla. EAE-n 126 herri dira euskaldunak, baina beraien txikitasunean desberdintasunak dituzte biztanle aldetik:

- 64 herritan ez dira 1.000 biztanlera iristen.
- 42 herritan 1.000 eta 5.000 biztanle artean.
- 21 herritan, 5.000 eta 25.000 biztanle artean.
- Herririk ez dago 25.000 biztanle baino handiagoa. Handiena Zarautz da.

Bizitokiaren aldetik, euskaldun gehienak herri txikietan bizi dira. Autoreak datuak asko murriztuta ondorioztatzen du: zenbat eta herri txikiagoa izan, orduan eta euskaldunagoa dela; aldiz, zenbat eta handiagoa erdaldunagoa. Halere, ez da ahaztu behar, euskal hiztuna gero eta hiritarragoa dela; besteak beste, euskal hiztun multzo handienak hiriburuetan daude. Datuen arabera, handiena Bilbon dago.


Euskal herrietan, azken hogeita hamar urtetan, orokorrean, biztanleria hazi egin da. Hazkunde hori, beste herriekin alderatuta, apala baina goranzkoa izan da.

Herrien ezaugarriez gain, euskal udalerrriak ezaugarri soziolinguistiko batzuk dituzte. 2011-ko datuen arabera, hizkuntza gaitasunari dagokionez, %72,3-k ondo daki euskaraz hitz egiten; %15,2 ulertzen du edo badakite zerbait; eta gainerako %12,5-ak ez daki euskaraz.



Lehenengo taulan (1.taula) ikusi daitekeen bezala, herri euskaldunetan euskaldun kopurua %72,3koa da. Horretaz aparte, gainerako herrietan euskaldunak %30,9 dira eta, ia beste horrenbesteko kopuruan, ia-euskaldunak %27,4 dira.

Bestalde, herri euskaldunetan (1.irudia) lehen hizkuntza edo ama hizkuntza %58,4-k etxetik euskara izan dute eta %31,4-k gaztelania. Biztanleen artean badira bi hizkuntza batera jaso dituztenak eta badira, euskaraz/gaztelania hizkuntzetatik aparte, beste hizkuntza bat jaso dutenak.



Herri euskaldunetan biztanleen %56,4 euskaldun zaharra da eta horiekin batera gehitu daitezke jatorrizko elebidunak eta euskaldun berriak. Guztira %72,2 da euskaraz dakitenen kopurua.

Mutrikuko euskararen erabilera datuekin jolasean, eta aurrera begira zer?


Sakontze Egitasmoa

Beñat Urkiza Sesma, 2015eko uztaila

Egileak emandako datuetan, ordea, etxeko hizkuntzetan beste emaitza batzuk ikusten dira. Lehen hizkuntzatik etxeko hizkuntzara aldea dago, etxean euskara jaso dutenak baino gutxiagok erabiltzen dute etxean. %47,5-ak etxean euskara erabiltzen du eta %37.3-k gaztelania. Askotan aipatu izan da, umeei euskaraz hitz egin eta ondoren ohitu hori galtzeko joera dagoela. Hori dela eta, gerta daitezke datuetan ikusten diren desberdintasunak.

lurrebasok hizkuntza gaitasunaren, lehen hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren datuak eman eta gero, horiek izan duten bilakaera deskribatu du.

Hizkuntza gaitasunari dagokionez, egileak dio EAE-n bilakaera ez dela modu homogeneoan eman eta herrika eskualdeka baino alde nabarmenagoak daudela. Datuen arabera, herri erdaldunagoak zirenak euskaldunak baino gehiago euskaldundu dira. Hau da, datu baxuko herriak altxatu egin dira eta datu altuko herriak jaitsi, adibidez: Zaldondo %1,6-tik % 36,9-ra; aldiz, Maruri-Jatabe %85,8-tik %62,2-ra. Ikerlanean agertzen den ondorengo taulan gauzak argiago ikusten dira.




Bigarren taulan (2.taula) muturrekoak diren adibide batzuk agertzen dira, baina adituaren arabera, nahiko argazki erreala da.

Hurrengo lau iruditan hogeita hamar urtetako bilakaera ikusiko da, desberdintasunak kolore aldaketatan daude.


Mutrikuko euskararen erabilera datuekin jolasean, eta aurrera begira zer?

Sakontze Egitasmoa

Beñat Urkiza Sesma, 2015eko uztaila



Azken lau irudietan (2,3,4,5.irudiak) ikusi daitekeen bezala, hogeita hamar urtetan, euskaldunenak ziren herriak atzera egin dute eta euskara gutxi agertzen zen lekuetan aurrera egin du. Mutrikuren kasuan, gainontzeko herri euskaldunetan bezala, azken urtetan, argiagotzen joan da. Adituak dioenaren arabera, azken hamarkada izan da euskarak, herri euskaldunetan, atzerakadarik handiena jaso duen garaia. Ondorengo irudian, argiago ikusten da azken hamar urtetako joera.




Irudian (6.irudia) ikusten denez, zonalde erdaldunagoetan euskaraz puntu asko aurreratu ditu eta zonalde euskaldunetan atzera egin du. Mutrikuko datuek esaten dute, azken hamar urtetan, %5-eko atzerapena izan duela.

Iurrebasok atal hau laburbiltzen du esanez, azken hamarkadetan EAE handitu egin dela %37,2an. Bilakaera horretan, hazkundea ez da homogeneoa izan eta zonalde euskaldunak gutxi aurreratu direla edo atzera egin dutela.


Euskararen hazkundea EAE-n nola joan den ikusi eta gero, aurretik ikusi diren faktoreen bilakaera datuak plazaratuko dira. Iurrebasok faktoreen inguruan datu hauek ematen ditu:

Hizkuntza gaitasunaren bilakaera euskal udalerrietan goranzkoa izan zen 80 eta 90. hamarkadetan, baina azken hamarkadan gaitasuna gutxituz joan da. Egileak dio, lehen elebidun zirenak orain hizkuntza bat alboratu dutela bakar bat erabiltzeko, EAE-ko kasuan gaztelania hautatu dute.




Hirugarren taulan (3.taula) ikus daitekeen bezala, azken hamarkada izan da datuak makaltzen hasi den sasoia. Ia-euskaldunen kasuan, igoera apala bada ere, goranzko joera dago; eta erdaldunen kasuan, aldiz, beheranzko joera azken hamarkadan eten da eta goranzkoa da orain.

Lehen hizkuntzaren bilakaerari dagokionez, autoreak dio, azken mende laurdenean, euskara lehen hizkuntza zutenen kopuruak atzera egin duela. Bilakaerak abiadura desberdina izan du azken hamarkadetan, baina azkarrena azkenengoan izan da.



Laugarren taulan (4.taula) ikusten da lehen hizkuntza euskara izatearen beherakada 90.hamarkadan hasi zela, baina beherakada nabarmenena azken hamarkadan izan du. Gaztelania goranzko joeran doa eta, hemen ere, saltorik handiena azken hamar urtetan egin du. Funtsean, euskara kenduta beste hizkuntza guztien transmisioa eta erabilera gorantz doa.

Iurrebasok, bilakaerekin bukatzeko, etxeko hizkuntzarena, herri euskaldunetan, nola joan den azaltzen du. Bere esanetan, orain dela hogeit hamar urte hasi zen beherakada, baina nabarmenena azken hamarkada izan da. Gainera, adituak dio euskara jaistearekin batera, euskara eta gaztelania aldabatera erabiltzen zutenen ehunekoia ere jaitsi egin dela. Herri euskaldunak beherantz joan arren, datuek diote inguru erdaldunetan, poliki bada ere, euskara etxeko hizkuntza bilakatzen ari dela.



Bosgarren taulan (5.taula) ikus daitekeenez, euskara bere barnean hartzen duten alorrek behera egin dute nabarmen. Beste hizkuntzek, ordea, goranzko joera dute. Gaztelaniaren kasuan, behintzat, azken hamarkadako igoera esanguratsua da.


2.3. Mutrikuko euskararen kale erabileraren emaitzak:

Lurrebasok (2014) egindako lanean agertzen diren datuak adierazkorrik dira EAE mailan. Hala ere, Mutrikuko datuek zein eboluzio posible izan duten jakiteko balio izan du, nahiz eta kuantifikatutako emaitzak ez agertu. Beste maila batean, ezagutza eta gaitasun albo batera utzita, hutsune hori betetzeko, 2014ko irailean, Soziolinguistika Klusterrak Mutrikuko euskararen kale erabilera datuak aurkeztu zituen. Orintsuko datuak dira eta azken urtetako ibilbidearen emaitza ikus daiteke; hortaz, termometrotzat ibiltzeko datu onak dira.

Herri bateko euskararen inguruko datuak lortzeko aukera bat baino gehiago daude, eta horietako bat euskararen erabileraren kale neurketa da. Askotan, irizpide batzuen inguruan, modu subjektiboan hitz egiten da, baina komenigarria da, edozein kasutan, datu objektiboak izatea. Egitasmo horrek, herrian euskalgintzaren inguruan egin nahi den edozein ekintzari itzala eta diagnostiko bat ematen dio.


Mutrikuko euskararen kale erabilerari dagokionez, 2014ko irailean aurkeztu zituzten emaitzetan gauza asko esan zituen Belen Urangak, txostenaren egileak.

Datuen arabera, lehengo adierazle gisa, Mutrikun hitz egiten diren hamar elkarrizketatik ia zazpi euskaraz dira, elkarrizketen %67,1a. Gainontzeko %a gaztelania eta beste hizkuntza batzuen artean osatzen dute. Kanean gaztelania %30,1 hitz egiten da (7.irudia).




Emaitza horiek lortzeko, guztira 1.935 elkarrizketa kontabilizatu zituzten eta solasaldi horietan 5.173 pertsonak parte hartu zuten. Azterketa egin zen garaian, Mutrikun 4.897 biztanle bizi ziren; hortaz, elkarrizketa kopuru handia lortu zen. Neurketa egiterakoan unibertso osoa hartzen da kontuan eta termino estatistikoetan, lortutako emaitzari, +/-%2,1eko akats-tartea dagokio eta %95eko konfiantza-maila.

Hiztunen ezaugarrien arabera, sexuan (6.taula) Mutrikun ez dago alde handirik. Emakumezkoen eta gizonezkoen emaitzaren artean %0,2ko aldea dago. Emakumezkoek %67,2an egin dute euskara eta gizonezkoak %67an.




Mutrikuko biztanleen adina (7.taula) lau zatitan (haurrak, gazteak, helduak eta adinekoak) banatuz gero, gazteak eta haurrak dira euskaraz gehien hitz egiten dutenak. Biak ala biak ia proportzio berean, haurrak %83,6an eta gazteak %83,3an. Helduak eta adinekoak, aldiz, gazteen emaitzetatik urrun daude: helduak %58,3 eta adinekoak %65,2.



Adinari dagokionez, Soziolinguistika Klusterrekoek hausnartu dutenaren arabera, badago Euskal Herriko datuekiko diferentzia aipagarri bat. Itxura denez, Euskal Herriko euskararen erabilerearen hurrenkera ondorengoa da: haurrak, gazteak, helduak, adinekoak. Mutrikun, ordea segida hori aldatu egiten da. Hau da, haurrak eta gazteak oso pareko daude, baina helduen artean dago beherakadarik nabarmenena. Adineko jendearen mintzoak helduenak baino emaitza hobeto eman ditu. Egileen hausnarketaren ustez, erabilera hizkuntza-gaitasunarekin dago lotuta eta Mutrikun haur eta gazteek dute ezagutza daturik onenak. Hortaz, posible da tarte esanguratsua egotea belaunaldi desberdinen artean.

Azkenik, elkarrizketa tipologiaren inguruan adituek esan dute elkarrizketa taldea modu batera edo bestera antolatua izateak, euskararen erabilerearen emaitzetan eragiten duela. Datuek erakusten dute (8.taula), hizkuntza-portaera asko aldatzen dela taldean haurrak daudenean.



Haurrak beraien kabuz, %84,5ean erabiltzen dute euskara eta helduak %58,2an, baina haurrak eta helduak batzen direnean elkarriketen %80,1 euskaraz dira. Horrek esan nahi du helduek euskaraz badakitela.

2.4. Begira prospekzioa:

EAE-ko faktore desberdinen bilakaera eta Mutrikuko euskararen kale erabileraren datuak ikusi ondoren, BEGIRA prospekzioaren bitartez, etorkizunean Mutrikun gerta litekeenaren argazki bat ikusiko da. Aplikazio horrek euskararen ezagutza eta erabileraren adierazleak kalkulatzeko ditu. Hiru kalkulu egiten ditu: bata, ezagutzaren prospekzioa; bestea, erabileraren prospekzioa; eta, azkenik, bi adierazleen grafikoa kalkulatzeko du. Tresna horren laguntzaz, nahiz eta emaitzak zehatzak ez izan, aurrera begirako begirada bat egiteko balio du. Euskalgintzan dabilen jendeari laguntzeko eta abiapuntua zehazteko erabilgarri da.

Lore Erriondoren, Olatz Altunaren eta Pablo Suberbiolaren (2015) artean eginiko lanean agertzen den bezala, Begira-k herrietako euskara gaitasunaren datuak erabilia, bi emaitza ematen ditu: alde batetik, biztanleri eta biztanleri euskaldunaren arteko balantzea positiboa/negatiboa den esaten du; eta, bestetik, aurreikusten du gaitasunaren eta erabileraren estimazioak aurrera begira nolakoak izan daitezkeen.

Gaitasunaren datuari dagokionez (9.taula), Mutrikuko zenbakiak erakusten dute bai biztanleen kopurua eta euskaldunen kopurua, 2006-2011 urteen artean, handitu egin dela. Hala eta guztiz ere, nahiz eta balantzen positiboa izan, biztanleriaren areagotzea handiagoa da (1,01) euskaldunena baino (0,52).

udalerrri / auzategi	BIZTANLERIA		EUSKALDUNAK		HAZKUNTZAK	
	2006	2011	2006	2011	Bizt.	Eusk.
Mutriku	4820	5068	3853	3955	1,01	0,52

9. Taula: Mutrikuko balantzea

Gaitasunaren progresioa ere erakusten du (10.taula) estimazioen beste taula batean. 2011-2022 urteen artean euskaldun kopurua gora doala erakusten du taulak, baina zenbakiaren alboko %-etan beheranzko norabidea erakusten dute. Hau da, biztanleria hazi bai, baina ez euskaldunentzat esanguratsua izateko. Emaitzek erakusten dute 2011-n 3955 eta 2023-n 4211 biztanle izango dituela Mutrikuk, baina euskaldunak 2011-n %78,04 eta 2023-n %73,66 izango direla.

ESTIMAZIOAK	urtea	Mutriku	
		Eusk.	%
	2011	3355	78,04
	2012	3376	77,66
	2013	3997	77,29
	2014	4017	76,32
	2015	4039	76,55
	2016	4060	76,18
	2017	4081	75,82
	2018	4102	75,46
	2019	4124	75,09
	2020	4145	74,73
	2021	4167	74,37
	2022	4189	74,02
	2023	4211	73,66

10. Taula: Mutrikuko gaitasunaren progresioa


Aplikazioan gaitasunaren datuak sartu ostean, Txillardegiren eragiketa matematikoa erabiliz, zifra horretatik euskarriak balizko erabileraren datuak kalkulatu dituzte. Horrela, erabiltzaileak etorkizunean gertatu daitekeenaz ohartarazteko balio du.

Erabilera datuei dagokienez (11.taula), Begira-k erakutsitako datuetan beherakada bat ikusten da. 2011-n %53,14-ko erabilera aurreikusi zuen, aldiz, 2023-an %46,08-koa espero du. Datuak, nahiz eta zehatzak ez izan, hamaika urtetan Mutrikuk erabileran %7-ko beherakada izango luke.

udalerrri / auzategi	erabilera isotropikoa (estimazioa)											
	2011	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Mutriku	53,14	51,89	####	50,67	50,07	49,47	48,89	48,31	47,74	47,18	46,63	46,08

11. Taula: Mutrikuko erabileraren progresioa

Datuak sartu eta ikusita, Mutrikuko ezagutzaren eta erabileraren grafikoa (12.taula) ondorengo hau da:



Ondorioztatu daitekeena da, biztanleriaren eta euskaldunen bilakaera positiboa izanda, etorkizunera begira, biztanleriaren hazkundeak eragin negatiboa ekarriko diola euskarari. Herriak zenbat eta biztanle gehiago eduki, orduan eta kalte handiagoa eragingo die euskaldunei. Besteak beste, biztanleriaren hazkundearen balantzea euskaldunena baino positiboagoa delako.

3.- METODOLOGIA

Metodologia atala bost atal desberdinetan banatu da. Modu horretara, lanean hartutako erabakien eta egin diren planteamenduen berri informazioa emango da.

Lehenik, metodologia kuantitiboaren inguruan azalpena emango da, lanean inkesta erabili delako informazioa lortzeko tresna gisa. Bigarrenik, metodologia kualitatiboa azalduko da, talde espezializatu bat sortu delako lanean. Hirugarrenik, lagina zein izan den azalduko da; hau da, parte hartu duten lekukoak zeintzuk izan diren eta zein aldagai soziolinguistiko erabili diren. Laugarrenik, lana osatu den eremu geografikoaren azalpenak eta datuak emango dira. Azkenik, datu bilketa nola egin den azalduko da; hurrenez hurren, metodologia desberdinak ibili direlako.

3.1. Metodologia kuantitatiboa:

Zesar Martinezek, Kontxesi Berrio-Otxoak, Olatz Altunak eta Nekane Jausorok (2015) egindako lanean metodologia kuantitatiboaz informazioa ematen dute. Egileek diote metodologia horren ezaugarrietako bat behaketa dela, baina lortutako datuak estatistikoki edo matematikoki frogatuak izan behar direla. Azterbide honek egile bakoitzaren interesen arabera emaitza desberdinak lortzeko balio lezake, baina datuak lortzeko erarik ezagunena inkestarena da.

Inkestaren metodologiarekin lekukoari, tokian tokiko errealitatearen adierazgarria izan behar den kopurua biltzen duenari, galdera batzuk zuzentzen dizkio ikertzaileak eta erantzunak eskatuko zaizkio. Bestalde, inkestaren egitekoa bikoitza da: alde batetik, sozialki gertatzen dena, euskarri matematikoen bidez, deskribatzea; eta, bestetik, datuek erakutsitakoa, baliabide matematikoekin, azaltzea.

Lan egiteko modu hau baliagarria da errealitate soziala landu nahi bada eta argazki bat osatu nahi bada. Halere, adituen esanetan, interpretazioak eta diskurtsoen arrazoiketarako desegokia da.

Ikerlan honetarako ere, telefono inkesta izan da aukeratutako tekniketako bat. Bere baitan, inkestak bi bariante ditu irizpide matematikoak kontuan hartzen dituen eta komunikazioaren garrantzia. Edozein kasutan, autoreek diote bi alorrek osatzen dutela inkestaren egitekoa. Emaizta gizarteri buruzko gertakari bat aztertzea baldin bada, matematika datuak interpretatzeko erabilgarria izango dira, baina komunikaziorik gabe ezin dira daturik lortu, bi pertsonen arteko interlokuzio bat delako. Pedro Moralesek (2012) eta Zesar Martinezek, Kontxesi Berrio-Otxoak, Olatz Altunak eta Nekane Jausorok (2015) diote inkesta bat baliagarria izateko, aztertuko den eremuan, kopuru esanguratsu bat erabili behar dela. Horrela ez bada gertatzen, inkestak sinesgarritasuna galduko du edota ez da horren ziurra izango.

Inkesta osatzen duten galderak bi motatakoak izan daitezke: irekiak edo itxiak. Normalean galdera itxiak izaten dira. Galdera irekien arazoa da datuak aztertzeke orduan modu subjektiboan esandako gauzez oroitzea zail izango lukeelako ikertzaileak. Halere, gai zehatz bat baldin bada eta ikertzaileak informazio hori nahi badu galdera irekiak egiteko aukera izango luke. Horretarako, inkestaren osaketarako diseinu lana eta aurretiazko hausnarketa garrantzitsuak dira.

Telefono bidezko inkestak abantaila zenbait baditu, esaterako: kale lanaren kostua murrizten du, pertsonal gutxiago behar da, kale lanerako debora gutxiago behar da, elkarrizketen iraupen motza da, geografikoki zabaldua dagoen jendearengana iristeko errazagoa da, saiakerak errepikatu daitezke... Horrez gain, alde negatiboak edo kritikak ere baditu: kobertura akatsak, laguntza begi bistakorik ez, elkarrizketatuari memoria lana eskatzen zaio, traba fisikoak (linea okupatuak, erantzungailua, linea zaharrak)...


3.2. Metodologia kualitatiboa:

Zesar Martinezek, Kontxesi Berrio-Otxoak, Olatz Altunak eta Nekane Jausorok (2015) beraien lanean diote metodologia kualitatiboaren helburua datuen bilketa egitea dela eta datu horiek, objektiboak edo subjektiboak izan daitezkeela. Kuantitatiboa ez bezala, kualitatiboa gertakari eta diskurtsoetan oinarritzen da. Lan egiteko modu honek ez du bilatzen luze eta zabal aritzea gai baten inguruan, baizik eta gaiaren muinera iristea. Horretarako, lekukoei edo parte hartzaileei konfiantza edo hurbilpen sententzia eman beharko dio ikertzaileak.

Ikertzaileak bi aldagai izan beharko ditu kontuan: bata, egoera aktiboa sortzea, parte hartzailea; eta, bestea, datu bilketa momentua irekia eta zabala izan behar duela. Autoreen arabera, moderatzaileak egoera modu finean aurkeztu eta gauzatu behar du, artisaua bailitzan. Ikertzailearen beraren parte

hartzea ahalik eta txikiena izan behar da, elkarriketa bideratu behar du eta baloraziorik ez egin.

Metodologia hau praktikan jarri aurretik, adituek diote zenbait gauza zehaztuta izan behar direla, esaterako: ikergaia finkatu, baliabideak aztertu eta metodologia eta teknikak aukeratu. Egileek diote gidoi horrek ez duela metodologia kuantitatiboarekin zer ikusirik.



Irudian agertzen den bezala (8.irudia), metodologia kualitatibo batek egin behar duen ibilbidea hori da. Gida horren barruan ikerketa bakoitzaren arabera eta lortu nahi diren helmugak kontuan hartuta, ikertzaileak bide desberdinak hartu ditzakeela diote adituek.

Ikerketa honetan, metodologia kualitatibo teknika bezala, eztabaida taldearen bariante bat erabili da. Funtsean, horrelako taldeetan makroaren zati den mikro talde bat batzen da landu nahi den gaiaren inguruan solasteko. Modu honetan, gizarte edo komunitate baten barruan dauden ikuspuntuen multzoa batzen da toki eta une jakin batean. Egileen arabera, ikertzailearen helburua diskurtso desberdinak batzea da. Horretarako garrantzitsua da ikertzaileak egoera ondo finduta eta diseinatuta izatea taldeko kideak berak nahi duen tokira gidatzeko.

Taldeak bost pertsonatik gorakoak izango dira eta gehienez hamarrekokoak. Taldea handiegia baldin bada, kudeaketarako handiegia izango litzateke eta bost pertsona baino gutxiago izango balitu alderantziz, desegiteko arriskua egongo litzateke. Saio bakoitzak gehienez bi ordu irauten ditu. Irakurgaiaren arabera, idealena taldekideak ez ezagutzea izango litzateke, baina ikerlan honetan bezala, Mutriku herri txikia denez, ezinezkoa izango da.

Lan talde honetan parte hartzeko ezaugarri nagusia bakarra izan da; bidenabar esanda, lanaren helburuak lortzeko beharrezkoa zena: euskararekin lan egiten duen pertsonak izatea, euskararen adituak. Esanahi horren barruan sartzen direnak euskara teknikariak, irakasleak, aholkulariak edota boluntarioak izan daitezke.

3.3. Lagina:

Lagina osatzen duten lekuko kopuruak eta nolakotasunak hiru ataletan banatzen dira.

Metodologiei dagokionez, esanguratsuenak bi izan dira: alde batetik, metodologia kuantitatiboa; eta, bestetik, metodologia kualitatiboa. Halere bakoitzaren barruan azpi sailkapenak egin daitezke.

3.3.1. Telefonozko inkesta:

Metodologia kuantitatiboaren barruan, aurretik esan den bezala, inkesta erabili da teknika gisa. Aitzitik, helburu bera lortzeko; hau da, diagnostiko ahalik eta zabalena lortzeko, bi inkesta egin dira.

Bata, telefonozko inkesta izan da. Pedro Moralesen (2012) artikuluan agertzen den bezala, inkesta bat esanguratsua izateko eta emaitzak baliozgarriak izateko, toki bakoitzeko popularekin proportzionala izan behar da. Horretarako (13.taula), autoreak dio konfiantza maila, balizko erroreen maila eta populazioaren tamaina kontuan hartu behar direla.

<i>Tamaño de la población</i>	<i>nivel de confianza</i> $\alpha = .05 (z = 1.96)$	
	para e = .05	para e = .03
N = 100	n = 80	n = 92
N = 150	n = 108	n = 132
N = 200	n = 132	n = 169
N = 250	n = 152	n = 203
N = 500	n = 217	n = 341
N = 1.000	n = 278	n = 516
N = 2.500	n = 333	n = 748
N = 5.000	n = 357	n = 879
N = 10.000	n = 370	n = 964
N = 100.000	n = 383	n = 1056
N = 1.000.000	n = 384	n = 1066
N = 2.000.000	n = 384	n = 1066

13. Taula: inkesta esanguratsua izateko, herri bakoitzeko bete beharreko kopuruak

Mutrikun, kontuan hartu beharreko faktoreak aintzat hartuta, telefonozko inkesta egiteko 357 lekuko behar dira. Datuak borobiltzeagatik, 360 lekuko erabiliko dira lehenengo inkestaren corpora osatzeko.

Inkesta horri *norbanakoen inkesta* (Ikus. 1.eranskina) deitu zaio eta, faktore soziolinguistiko gisa, generoa eta adina kontuan hartu diren irizpideak izan dira. Hortaz, 360 lekukoren corpora adin talde eta generoaren bidez banatu da (14.taula).

	Gizonezkoak	Emakumezkoak
65>	25	30
64-55	35	40
54-45	45	45
44-30	50	50
29-18	20	20
14. Taula: Telefonozko inkestarako erabili den corpusaren banaketa		

Uste da belaunaldi horiek lanari osotasuna emango diotela. Hau da, lekuko gazteago edo nagusiagoak erabili ahalko liriteke, baina, gaur egun, Mutrikuko biztanleriaren ehunekorik handiena adin talde horietan kontzentratzen da. Banaketa honekin lortu nahi izan dena da, Mutrikuko hiztun komunitatea ordezkatzeko duen lagin estatistikoki adierazgarria izatea da.

Adin tarte batetik bestera, *kremailera efektua* egiten dute. Hau da, talde gazteena (18-29 adin taldea) helduen adin taldekoen seme-alabak izan daitezke. Azken horiek aldiz, talde nagusikoena. Modu horretara, adin tarteak nahiko mugatuak izatea lortu da, beraien artean desorekarik ez izateko.

Generoari dagokionez, adin tarte bakoitzean ezarritako lekuko kopurua antzekoa da. Desberdintasun bakarrak multzo nagusienetan ikusten da eta arrazoia bakarra da, ikerketen arabera emakumezkoek bizi iraupen handiagoa dutelako.

Faktore soziolinguistikoek garrantzia dute ikerlan honetan. Hauen laguntza ezinbestekoa izango da diagnostikoa osatzeko orduan. Aldagai desberdinak aukeratzeko arrazoia izan da hutsuneak identifikatzea errazten duelako eta adina eta generoa kontuan hartuta gauza beraren ikuspuntu desberdinak lortu daitezkeela.

Bestalde, aldagai soziolinguistikoak baliogarriak izateko bi irizpide izan behar dira kontuan: bata, ikerlanerako baliogarria izan daitekeela aurretik hausnartzea; eta, bestea, lekuko egokiak izatea. Bigarren irizpidearen kasuan, hein handi batean, ez da ikertzailearen esku egon; hots, ikerlanean inkesta erabili denez, ausazkoa izan da lekuko aukeraketa.

3.3.2. Eragileentzako eta taldeentzako inkesta :

Bestea, *eragileentzako eta taldeentzako* inkesta (Ikus. 2.eranskina) izan da. Hasieran, telefonozko inkesta egitea zen asmoa, baina, gauzak hobeto hausnartuta, lekukoez gain, aktiboen zeuden eta euskararekin lan egiten zuten taldeen iritzi ere jaso behar zela erabaki zen.

Horretarako, herrian, esparru desberdinetan, euskara aintzakotzat hartzen zuten zortzi talderen iritziak jaso dira. Euskararen ikuspuntutik talderik antolatuenak ondorengoak dira: Bertso Eskola, Gazte asanblada, Zine Forum, Txantxangorri aisialdi taldea, Bai Txo! Euskara taldea, EMA emakume taldea, Ernai gazte antolakundea eta Mutrikuko Rock Kolektiboa.

Kopuru aldetik, taldeko bakoitzeko 2-3 lagunekin batu da. Guztira, gutxi gorabehera, 24 lekuko.

3.3.3. Aditu taldearen solasaldia:

Metodologia kualitatiboaren barruan, aditu talde batekin solasaldi bat egin zen. Taldea bi asmo betetzeko sortu zen: alde batetik, inkesten bidez lortutako emaitzen gaineko hausnarketa egiteko; eta, bestetik, adituen laguntzarekin Mutrikuko euskara planak zein irizpide nagusi izan beharko lituzkeen zehaztea.

Aditu talde horretan, euskararekin lan egiten duten jendea, herrian egon diren euskara teknikari desberdinak eta euskara taldean boluntario lanean ari diren batzuk batu ditu. Euskararen gaian murgilduta dagoen jendea batzeak aurre planari aniztasuna eta ikuspuntu anitzak emango diola uste da.

Hitzordua egin zenean, solasaldia ahalik eta ordenatuena izateko, nahiz eta eztabaida nora joango ze aurreikusterik ez zegoen, eskema moduko bat eman zitzaizen (Ik. 5.eranskina). Modu horretara, parte hartzaileek nolabaiteko bide orri bat izan zuten uneoro.

3.4 Laneko eremu geografikoa eta demografia:

Urkizaren (2014) artikuluan agertzen den informazioaren arabera, Mutriku Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) dagoen herri bat da. Gipuzkoako ipar-mendebaldeko bazterrean, Bizkaiarekin mugan dagoen kostaldeko udalerria da, Debabarrena eskualdekoa.

Lurrez alboko zenbait herri baino handiagoa da, eta lurraren bi esparruak erabiltzen ditu etekina ateratzeko, hau da, itsasoa eta mendia.

Mutrikuko euskararen erabilera datuekin jolasean, eta aurrera begira zer?

Sakontze Egitasmoa

Beñat Urkiza Sesma, 2015eko uztaila

Alde batetik, Mutriku bere itsasertz eremuko golko txikietako baten dago finkatua eta herri gunea bera ere bai. Hori horrela izanda, portua eta herria nahiko batuta geratu dira; eta, bestetik, mendi aldeak portu eremuak ez duen zabalkundeak dauka.

Mutriku, mendi edo lur sailen bitartez, beste herri batzuekin dago harremanetan. Beste herriak hasten diren mugetaraino auzoak daude eta Mutrikuko lurak, bere horretan, Bizkaiko eta Gipuzkoako mugen artean daude.


Bi probintzien artean banatuta daude mendi eremuetako alde batzuk. Alboko eremuak Gipuzkoako Deba eta Mendaro; eta Bizkaiko Ondarroa, Berriatua, Markina-Xemein herriak dira.

Mutriku herri guneez gain, auzoez osatua dago, guztira bederatziz: Galdonamendi, Mijoa, Mixkia, Artzain erreka, Ibiri, Olatz, Laranga, Olabarrieta eta Astigarrabia.

Lurrez zabala eta anitza den bezala, euskararen inguruan Koldo Zuazok (2008) argitaratu zuen *Euskalkiak*. *Euskararen dialektoak* liburuan Mutrikuko euskara, Mendaro eta Elgoibarreko hizkerekin batera, tarteko hizkera bezala identifikatzen zuen. Tarteko hizkera esango genioke, eremu bat baino gehiagotik edaten duen aldaera bati; hortaz, bi ezaugarri dira tarteki izendatzeko baliagarriak. Alde batetik, Mutriku bere kokapen geografikoaren arabera Gipuzkoa eta Bizkaiaren artean dagoela; eta, bestetik, mendebaldeko euskara eta erdialdeko euskararen artean dagoela.

Bestalde, Mutriku bizi diren biztanleen errealitate linguistikoa ikusteko, Urkizaren (2014) artikuluan agertzen diren, baina Soziolinguistika Klusterreko (2014) lan batetik ateratako informazioa emango da.

Biztanleriari dagokionez, Mutrikuk bilakaera hau izan du azken hamarkadetan.




Mutrikuko euskararen erabilera datuekin jolasean, eta aurrera begira zer?

Sakontze Egitasmoa


Beñat Urkiza Sesma, 2015eko uztaila

Grafikoan ikusi (15.taula) daitekeenaren arabera, 1986tik gaur egunera arte biztanle kopurua igo egin da. Zenbateko horietan, ume kopurua jaisten joan den heinean, zaharren zenbatekoa igotzen joan da.

Generoari dagokionez (16.taula), biztanleria ia-ia %50ean banatzen da. 2011ko datuen arabera, gizonezkoak 2552 dira; eta emakumezkoak 2516.



Jatorriari dagokionez, biztanleriaren portzentajerik handiena %76 Gipuzkoakoa da; %12 EAeko beste herrialdeakoa da; eta %13 EAetik kanpoko herrialdeakoa. Datu horiek ere erakutsiko dute euskararen gaitasuna handia izatea, hots, biztanleek euskararekin harremanetan egoteko baldintza gehienak dituztelako (9.irudia).




Euskararen gaitasunaren gainean datu zenbait emateagatik, bildutakoak erakusten duena da 2011n %81 euskalduna dela; %11 ia-euskalduna; eta %9 erdalduna (10.irudia).


Mutrikuko euskararen erabilera datuekin jolasean, eta aurrera begira zer?

Sakontze Egitasmoa


Beñat Urkiza Sesma, 2015eko uztaila



Gaitasuna adin taldeka neurtuta, datuak erakusten dutenaren arabera, (17.taula), gaitasun handiena adin talde gazteenak (2-14 urte) izango luke eta txikiena, aldiz, helduen taldeak (35-64 urte) izango luke.



Generoaren ikuspuntutik, gaitasunaren aldea ez da esanguratsua (18.taula). Gizonezkoen gaitasuna %79 da eta emakumezkoena %82, hortaz, gutxiatik bada ere emakumezkoek gaitasun handiagoa dute.



3.5. Datu bilketa:

Datu bilketa bi modutan egin da. Alde batetik, telefonozko inkesta bidezko erantzunak zuzenean erantzun orrian jaso dira (Ikus 1.eranskina). Interlokuzioan elkarrizketatzaileak galderak egiten ditu eta elkarrizketatuak galderak erantzun ditu, hori izan da modua. Bestetik, solasaldi bat egin da

Mutrikuko euskararen erabilera datuekin jolasean, eta aurrera begira zer?

Sakontze Egitasmoa

Beñat Urkiza Sesma, 2015eko uztaila

moderatzaileak bideratuta eta emaitza grabatu egin da. Horren ostean, ikertzaileak lortu nahi izan duena atera du bilketa horretatik.

Inkestei dagokionez, telefonozko galdetegiak ahalik eta neutroenak eta berdinak izateko protokolo bat jarraitu da:

1. Agurra egin.
2. Nondik deitzen zen azaldu.
3. Ikerketaren nondik norakoa azaldu.
4. Galderak egin eta erantzunak jaso.
5. Agurtu eta eskerrak eman.

Protokoloaren gainean zenbait gauza argitu behar dira. Lehenik eta behin, nahiz eta ikerketa partikular bat izan honako hau, elkarrizketatzaileari Mutrikuko euskara taldearen, Bai Txo!-ren, izenean egiten zela esan zaio; horrekin formalismo kutsu bat ematen dio ikerketari eta elkarrizketatuarentzat ere lasaigarriagoa dela uste da. Horrez gain, euskara taldearen bidez elkarrizketa egiteak elkarrizketatuari erantzunetan ardura gehiagoz jokatzea eskatu nahi izan zaio.

Datuak jasotzerako orduan, telefonozko inkesta egiterakoan, irizpide batzuk izan dira. Lekukoak telefono zerrenda baten barruan hartutako irizpide baten arabera aukeratuak izan dira. Hartutako neurria ondorengo da: telefono zerrenda hamar zenbakiko tarteez banatu zen; hau da, 1.telefona deitu eta deia erantzunez gero, hurrengoa 10.telefona izango litzateke eta horrela beti. Baina 1.telefonoak ez balu hartuko, 2.telefonoari deituko litzaioke eta horrela hartu arte. Telefono deia gauzatu ez eta 6.telefonoak erantzungo balio deiari, hurrengoa 10.telefona izango litzateke.

Telefonozko 360 deiak egitea denbora luzeko lana izan da, gutxi gorabehera hilabete inguru. Horren ostean, emaitzak kuantifikatu eta estatistikoki emaitzak atera behar izan dira.

Taldekako inkestak, aldiz, ez dira horren zurrunik izan emaitzak jasotzeko orduan. Modu laburtuan esateagatik, ez dira telefonozkoak bezain itxiak izan. Elkarrekin bakoitzarekin egoteko denbora tarte handiagoa hartu da, baina bete beharreko inkesta formularioa, inkesta mota batetik bestera, antzekoa izan da.

Aitzitik, emaitzak lortzeko orduan eta eragiketa estatistikoak egiterako orduan berdina izan da prozedura.

Solasaldiaren kasuan, emaitzak lortze uneko erritmoa eta irizpideak desberdinak dira. Inkestetan ez bezala, teknika horrek denbora gehiago eskatzen du, emaitzak ere diskurtsoak direlako ez erantzunak.

Aditu taldeari dagokionez, solasaldia lasaia eta patxadatsua izan zen. Aduituei borondatezko lan luzea eskatzen zitzaienez, testuingurua edota momentua unek eskatzen zuenerako moldatu zen. Eztabaida egiteaz gain, hitzordua konfiantzazkoa izateko behar ziren neurriak hartu ziren, esaterako: lokal lasai bat guztientzako neutroa izango zena, janaria eta edaria eman zitzaien... Halere, hitzordua eguna baino bizpahiru aste lehenago aditu taldean parte hartu zuten kideei ordura arte lortutako datuekin osatutako txosten bat eskuragarri jarri zitzaien. Txosten horretan, batik bat, telefonozko eta talde eta elkarte bidez lortutako emaitzen nondik norakoak agertzen ziren. Idatzi horrek helburua zuen hitzorduko unean eztabaida ahalik eta aberatsena izatea.

Datuak jasotzeko grabagailua eta idazkari baten laguntza egon zen. Grabagailuak, alde batetik, hitzorduan esan zen guztia jaso zuen; eta, bestetik, idazkariak aditu bakoitzak esandako puntu esanguratsuenak. Bestalde, bi adituk ezin izan zuten hitzordura hurbildu, hitzordura hurbildu ziren lekukoei eman zitzaien eskema emailez bidali zitzaien; ondoren, horren gainean beraien iritzi pertsonalak emateko.

4.- EMAITZAK

Metodologia atalean azaldu diren bezala, ikerlan honetan, datuak jasotzeko, metodologia bat baino gehiago erabili dira. Hortaz, emaitzen atal honetan, erabilitako teknika bakoitzeko, datuak desberdinak izango dira.

Irizpide anitz horien artean zehaztasuna jartzeko, teknika zabalenetik zehatzenera ordenatuko dira. Horregatik guztiagatik, lehenik telefonozko emaitzen azalpena emango da, eta, ondoren, talde kulturei egin zaizkien elkarrizketena. Landa lanarekin lotutako emaitzak eman ostean, aditu taldearekin lortutako ondorioak eta ideia nagusiak azalduko dira.

Azpimarratzekoa da datuak eta emaitzak azaltzerakoan, kasu honetan, landa lanik gabe ezingo zirela eztabaida taldeko emaitzak lortu. Horregatik, inkesta bidez lortutakoak ikerlan honetan ezinbestekoak izan dira.

Telefonozko inkestan 360 lekukok hartu zuten parte, Pedro Moralasen (2012) artikuluan agertzen ziren irizpideak jarraituta. Lekuko horietatik 185 emakumezkoak ziren eta 175 gizonezkoak.

Mutrikuko populazio zabalena hartzeko ahaleginetan, adin taldeak ziren. Berez, adin talde zehatzagoak edo beste modu batera antolatuak egin

zitezkeen, baina erabaki zen egindako taldetara mugatzea. Alde batetik, 18 urte azpikoei ezin zaie elkarrizketarik egin; eta, bestetik, tartean nagusiren bat egon bada ere, 90 urtetik gora, beste guztiak, nagusitasunaren barruan, adinez errespetagarriak izan dira. Beraien nagusitasuna eta atsedena errespetatzen saiatu da lan honetan. Hori esanda ikerlanerako erabili diren adin taldeak eta kopuruak zehaztu ziren (Ikus. 14.taula).

Elkarrizketak egin eta gero, emaitzak, kontabilizatzeko orduan, %etan eta kopuru absolutuetan eman dira. (Ikus 3.eranskina). Emaitzen taulan agertzen diren laburduren esanahia:

Laburdurak	
<i>E</i> : emakumea	<i>G</i> : gizona
<i>A</i> : asko	<i>Gu</i> : gutxi
<i>H</i> : handia	<i>T</i> : txikia
<i>B</i> : bai	<i>E</i> : ez
19. Taula: Laburduren esanahiak	

4.1. Telefonozko inkestaren emaitzak:

Telefonozko inkestan lau galdera (Ikus 1.eranskina) nagusi egin ziren lekuko bakoitzak bere pertzepzio eta usteekin erantzun ahal izateko. Erantzunak kolore eta hausnarketa desberdinekoak izan dira eta aniztasunaren erakusle izan dira. Emaitzen aurkezpena egiteko eta datuak ahalik eta garbienak izateko, galdera bakoitza bere aldetik aztertuko da.

4.1.1. Emaitzak adin tarteen eta generoaren bidez aztertuta:

Lehenengo, adin tarteen faktore soziolinguistikoaren bidez lortutako emaitzak ikusiko dira galderaka. Jarraian, generoaren arabera ikusi diren datuen berri ere emango da.

Generoa kontuan hartuta azterketa egiteak, agian, beste ikuspuntu bat ikusten lagunduko duela. Bigarren faktore soziolinguistikoa azaltzeko orduan, 3.galderaren emaitzak ez dira azalduko, faktore bata zein bestearekin berdinak direlako.

1. Galdera: Mutrikun euskararen kale erabilera %67,1 da. Asko ala gutxi da?			
	Lagin osoa	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Asko*	%31,4	%21,6	%25,7
Gutxi*	%85	%78,3	%74,3
Guztira	-	%100	%100

20. Taula: norbanakoen 1.galderaren emaitzak

*Adin tartearen arabera emaitzetan lortutako emaitzarik handienak eta txikienak.

Lehenengo galderak, Soziolinguistika Klusterrak irailean aurkeztutako emaitzen inguruko pertzepzio ariketa bat eskatzen zion lekukoari. Galdera hau egiterakoan, lekuko askok ez zuten datua ezagutzen, eta beste askok *gutxi* edo *asko* erantzuna eman beharrean *gezurra* zela esaten zuten. Hortaz, alde batetik, jendearen informazio falta dago, eta, bestetik, zerbait badakien pertsonaren perfila dago, baina emaitzak ez ditu errealak ikusten.

Erantzuna desglosatzen bada, nagusitasunez, bai emakumezkoak eta bai gizonezkoek ere, Mutrikuko kalera erabileraren emaitza *gutxi* deritze. %etan esanda, adin tarte guztietan, %65etik gora, esan dute erabilera *gutxi* dela.

Fokua adin taldeetan jarrita, *gutxi* erantzunaren emaitzarik handiena 55-64 emakumezkoen adin tartean ikusi da, %85 batekin. Eta txikiena, adin tarte berdinean, 55-64an, baina gizonezkoetan. Horrek erakusten du, pertzepzioa adin tarte berdinean ere, desberdina izan daitekeela.

Bidenabar, *gutxi*-ren emaitza onena eta txarrena generoaren arabera desberdina bada, horrek esan nahi du *asko*-ren emaitza onena eta txarrena adin tarte berdinean dagoela. *Asko* erantzunaren emaitzarik onena 55-64 adin tarteko gizonezkoena da, %31,4; eta txarrena 55-64 adin tarteko emakumezkoena, %15.

Datuak datu, esan daitekeena da Mutrikuarentzat %67,1 erabileraren emaitza *gutxi* dela. %ak aldatu arren, orokorrean lekukoek ez dute emaitza esanguratsu bezala ikusten.

Generoaren aldetik, lortu diren emaitzetan emakumezkoek nabarmenago ikusten dute Mutrikuko euskararen kale erabileraren emaitza *gutxi* dela. Datuek esaten dute emakumezkoen %78,3arentzako (145 emakume) *gutxi* dela. Gizonezkoen kasuan, beraiek ere argi erakutsi dute, %74,3 batean (130 gizon), erabilera *gutxi* dela. Hurrenez hurren, emakumezkoen %21,6ak (40 emakume) eta gizonezkoek %25,7k (45 gizon) esan dute euskara kalean *asko* erabiltzen dela.

Kasu honetan, emakumezkoak eta gizonezkoak kale erabileraren emaitzaren gainean, pertzepzio aldetik, nahiko batera joan dira.

	2. Galdera: Mutrikun euskararen ezagutza %80-koa da. Ezagutza erabileraren arteko aldea <u>handia</u> ala <u>txikia</u> da?		
	Lagin osoa	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Handia*	%85	%67	%65,1
Txikia*	%46,6	%32,9	%34,8
Guztira	-	%100	%100
21. Taula: norbanakoen 2.galderaren emaitzak			

*Adin tarteen arabera emaitzetan lortutako emaitzarik handienak eta txikienak.

Bigarren galderak lekukoari erabilera eta ezagutzaren artean dagoen diferentziari buruzko pertzepzio ariketa egiteko eskatzen zion. Bi datuen artean 13 puntuko aldea dago eta hemen, aurreko galderan bezala, erantzun desberdinak egon dira.

Erantzunetan ikusi daitekeenaren arabera, galdera honetan lekukoak tarte handia dagoela esan badute ere, ez dute esan erabilerarenean moduko argi. Emaitzak, %etan oinarrituta, *handia* erantzunaren aldekoak dira, baina ez horren nabarmenak.

Orokorrean esanda, adin tarte gazteenek tarte *handia* dela nabarmen ikusi dute; aldiz, adin tarte nagusienetan bi datuen arteko aldea *txiki*agotzat hartu dute. Hortaz, adin tarte gazteenetan nabarmena dena, nagusienetan ez da.

Adin tarteak kontuan hartzen badira, *handia* erantzuna gehien erantzun duen tarte 18-29koa, bai emakumezkoetan eta bai gizonezkoetan, biak %85. Beste aldean, *handia* erantzuna gutxien erantzun dutenak 65> adin tarteko emakumeak izan dira, %53,3.

Bestalde, *txikia* erantzunari dagokionez, babes gehien jaso duen adin tarte 65> adin tartekoena izan da, %46,6, eta, ondorioaz, erantzun gutxien 18-29 adin tartekoan aldetik, %15.

Adin tarte gazteeneko gazteak euskararen ezagutza eta erabileraren artean dagoen tartearikiko beraiek izan dira zorrotzenak eta arduratsuenak. Gaztenentzat 13 puntuko aldea esanguratsua da eta tarte handia dela deritze. Zergatiaren arrazoiak agerikoak ez diren arren, baieztatu daiteke kezka bat badutela; hau da, alde handia ikusten dutela. Nagusienek, aldiz, tarte hori ez dute ikusten edota beraientzat ez da adierazgarria.

Generoari dagokionez, ezagutza eta erabileraren artean dagoen 13 puntuko tartearen inguruko erantzuna ematerakoan, hemen ere emakumezkoak tarte *handia* dela nabarmenago adierazi dute. Gizonezkoen eta

Mutrikuko euskararen erabilera datuekin jolasean, eta aurrera begira zer?

Sakontze Egitasmoa

Beñat Urkiza Sesma, 2015eko uztaila

emakumezkoen arteko aldea ez da esanguratsua, baina datuak datu emakumezkoak %1,9 gehiago lerrokatu dira tarte *handia* dela azpimarratzerakoan.

Emaitzek erakusten dutena da emakumezkoek ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea *handia* dela esaten dutela, %67an (124 emakume). Gizonezkoek, aldiz, aldea *handia* dela esaten dute, baina neurri apalagoan, %65,1ean (114 gizon).

Ezagutza eta erabileraren arteko aldea *txikia* dela esaten dutenak ere zati adierazgarri bat lortu dute emaitzetan. Atal honetan lortu den %koa erabileran baino handiagoa da. Oraingo honetan, emakumezkoek alde *txikia* dela esan dute %32,9an (61 emakume) eta gizonezkoek %34,8an (61 gizon). Aldagai honetan gizonezkoak emakumezkoak baino baikorragoak direla esan daiteke, ez dutelako ezagutza eta erabileraren arteko aldea horren handia ikusten.

3. Galdera: Zer egingo zenuke euskararen erabileraren datuak hobetzeko?

Hirugarren galderan lekukoari, aurreko bi erantzunekin koherentea izanda, horretarako aukerarik ikusiz gero, Mutrikuko euskararen datuak hobetzeko zer egingo zukeen galdetu zaio. Hortaz, galdera horren helburua izan da lekukoei hurbil egiten zaien gai bat aitzakiatzat erabilita (euskara), balizko ideiak lortzea.

Erantzunen artean desberdintasunak egon dira. Baziren erantzunari luze eta zabal erantzuten ziotenak eta, baita ere, erantzunaren aurrean zuri geratzen zirenak ere. Halere, jarrera eta ez erantzute hori, aukeren artean sartzea erabaki zen; hots, ulergarritzat jo zen telefonozko elkarrizketa ez hautatu batean horrelako zerbait gertatzea.

Hasieran, inkesta egin aurretik, uste zen, modu horretara egitean, ez zirela erantzun eta proposamen asko jasoko, baina guztiz kontrakoa gertatu da. Nahiz eta proposamenak askotakoak eta anitzak izan, ez dira planteamendu sakonak eta landuak izan. Hori aurretik jakiteko modua zegoen, momentuan lekukoari eskatzen zitzaion hausnarketa gaitasuna zein zen ikusita. Hala ere, esanguratsuen, sakontasuna albo batera utzita, egon diren ekarpenak izan dira.

Orokorrean, jaso diren proposamenen inguruan atera daitezkeen ondorio nagusienetako bat da ideiak ez direla proiektu edo planak egiteko moduak, baina bai egingarriak. Askok eta askok euskal kontzientzia duen ororen buruan egon daitezkeenak dira.

Bestalde, normalean lekukoaren proposamenak positiboak eta parte hartzaileak izan dira. Hala eta guztiz ere, bi lekukok ezer proposatu ez zutela

Mutrikuko euskararen erabilera datuekin jolasean, eta aurrera begira zer?

Sakontze Egitasmoa


Beñat Urkiza Sesma, 2015eko uztaila

esan zuten eta biak arrazoi desberdinengatik. Batak dio, euskara ondo ikusten duela herrian eta ez ziola ezer gehituko, edo ahalegin berezirik ez behintzat; eta, besteak dio, bera euskaraz bizi dela eta ez duela ezeren beharrik ikusten; gainera, gauza txikiekin ez dela ezer lortzen, egitekotan zerbait handia egin behar dela.

Bi lekuko horietan bi perfil desberdin ikusten dira. Alde batetik, euskaldun kontzientzia garatu gabe duen lekukoa. Ez ditu hutsunerik ikusten eta ez ditu denbora eta baliabideak normalkuntzan inbertitzeko beharrik ikusten. Bestetik, lekuko kontzientziaduna, euskaraz bizi da, baina betiko gauzekin aspertuta dago. Hitzaldiek eta ikastaroek ez diote ezer eskaintzen. Hala ere, plan edota irizpide zabal eta beharrezko batzuk ezarriz gero, betetzeko borondatea izango luke.

Gainontzeko lekukoek zerbait esan zuten proposamena eskatu zitzaizenean, nahiz eta batzuen erantzuna zero izan. Onartu, bederen, egin zuten ez zitzaizela ezer bururatzen. Beste batzuek, ordea, gauza asko esan zituzten: *hitzaldiak, ikastaroak, euskara ikasteko aukera doan, kontzientzia, lehen hitza euskaraz, norberaren esku dago, gazteekin lanketa bereziak, guraso gazteekin lanketa bereziak, mintzalaguna, euskal komunikabideak sustatu, pertsona erreferentzialak aurkitu koadriletan, euskararen promozioa, prestigioa, udaletxea eredu, etorkinei baliabideak eman, dendetako errokulazioa euskaraz, ohitura kontua, motibazioa piztu, txikiteoa euskaldundu...*

Proposamenak askotarikoak dira eta gai desberdin asko ukitzen dituzte. Beraien artean eskema bat egin behar balitz lau adar nagusi izango lituzke.



11. Irudia: Proposamenen aniztasuna

Modu horretan sailkatuta, lekukoek emandako proposamenak kokatzea errazagoa da. Adibide batzuk emate aldera:

Formakuntza: hitzaldiak, ikastaroak, eskolak...

Motibazioa/Eredua: kontzientzia, lehen hitza euskaraz, norberaren esku, udaletxea eredu, ohitura kontua...

Baliabideak: irakaskuntza doan, mintzalaguna, etorkinentzako eskaintza, errotulazioa euskaraz...

Prestigioa: lanketa bereziak, euskal komunikabideak sustatu, pertsona erreferentzialak, euskararen promozioa...

	4. Galdera: Egindako proposamenak aurrera joanez gero, ekintzetan edo proiektuetan parte hartuko zenuke? Bai ala Ez.		
	Lagin osoa	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Bai*	%90	%63,2	%66,2
Ez*	%50	%36,7	%33,7
Guztira	-	%100	%100

22. Taula: norbanakoen 4.galderaren emaitzak

*Adin tartearen arabera emaitzetan lortutako emaitzarik handienak eta txikienak.

Azken galdera honetan, lekukoari egoera hipotetiko baten jarri zitzaion eta aurretik egindako proposamenak aurrera joanez gero, ea ekintza horietan parte hartuko zukeen galdetzen zitzaion. Egoera imajinatu beharreko testuinguru horretan, emaitza interesgarriak lortu dira.

Galdera hau hausnartu zeneko helburua parte hartzea neurtzea zen. Egoera hipotetiko bat bada ere, aurrera begira egon zitezkeen ekintzen partaide edo interesatu kopurua ziurtatzea zen; hau da, ikerlan hau plangintza baten aurre plangintza izanik, ez luke ezer martxan jarriko, baina norbaitek abian jarriko balu, jendearen interesak + parte hartze kopuruaren gutxi gorabeherako zifrak izango lituzke.

Parte hartzeaz lekukoei galdetu zaienean orokorrean modu positiboan erantzun dute. Adin tarte batean ere ez da egon desoreka nabarmenik. Galdera horretan, ezagutzaren galderan modura, belaunaldien arteko saltoa ikusten da.

Adin tarte gazteenek, parte hartzeari dagokion galdera, modu oso positiboan erantzun dute, *bai* erantzunaren emaitzarik handiena 18-29 adin tarteko emakumezkoetan egon da, %90; txikiena, aldiz, 55-64 eta 65> adin tarteko emakumeetan, %50.

Parte hartzeari ezetz esango diotenak ez dute horren modu deigarrian egin. *Ez* erantzunaren emaitza handienak 55-64 eta 65> adin tartetako emakumeetan egon dira, %50. Txikiena, 18-29 adin tarteko emakumezkoetan, %10.

55-64 eta 65> emakumezkoen artean lekuko askok esan dute ezetz, astirik ez zutela argudiatuta. Horren atzean beste arrazoiren bat egon da. Gehienetan emakumea bere lan profesionalaz gain, jakina da etxeko lanez eta haurrez arduratzen dela, nahiz eta hori poliki bada ere samurtzen doan. Halere, ez litzateke kasualitatea izango arrazoi horiengatik ezin parte hartu izatea. Horren aurrean, emakumezkoen adin tarte gazteenean modu oso aktiboak parte hartzeko borondatea erakutsi dute, gizonetzkoak baino gehiago. Azken urteetako irakurketa bat eginez gero, Mutrikun mugimendu sozialetan sartuta dabilen popularen % handi bat da emakumea, baina zenbait kasutan, arrazoi batzuegatik mugatua ere bai.

Generoari dagokionez, emaitzek erakusten dutenaren arabera, aurreko galderetan ez bezala, gizonetzkoak, gutxiatik, *bai* erantzunaren aldeko joera gehiago erakutsi dute. Generoa kontuan hartuta bien arteko aldea %3koa da gizonetzkoen fabore. Halere, bai emakumezkoen eta bai gizonetzkoen postura esanguratsua da. Gizonetzkoek parte hartzearen baiezkotz jarrerari %66,2an (116 gizon) erantzun diote. Emakumeak, aldiz, %63,2an (117 emakume).

Parte hartzea ezetz esan dioten zatia ere ez da nolana hikoia. Bi kasuetan zenbait lekukoren neutraltasuna, gaia euskara dela kontuan hartuta, aipagarria da. Gizonetzkoetatik %33,7k (59 gizon) esan dio ezetz parte hartzeari eta emakumezkoetatik %36,7k (68 emakume). Horrez gain, ikusi egin beharko litzateke parte hartzeari ezetz esateko arrazoia zein izan den.

4.2. Eragileen eta taldeen inkestaren emaitzak:

Mutrikuko talde eta eragile aktiboenei bederatzi galderako inkesta bat (Ikus 2.eranskina) egin zaie. Bederatzi galdera izan arren, inkestan sei gai agertzen dira: pertzepzioa, egoeraren interpretazioa, euskararekin loturako plana, proposamenak, parte hartzea eta sententzioak.

Norbanakoei egin zaien inkesta baino luzeagoa da, irekiagoa. Telefono bidezko inkestarekin alderatuta, bigarren honetan erantzunak zabalagoak izan dira eta denbora gehiago izan dute. Bestalde, inkestak taldekakoak izan direnez, elkarriketak ere talde bakoitzeko, gutxienez, 2-3 pertsoneri aldabatera egin zaie.

Mutriku eskaintza kulturalari dagokionez, nahiko indartsu dagoen herri da, baina lan honetarako, eragileen artean, euskara ardatz dutenekin bakarrik egon da. Talde anitzak eta desberdinak izan dira ikerlan honetarako informazioa eskatu zaienak, baina guztiek beraien egitekoa gauzatzeko euskararen beharra dute. Ondorengoak dira hurrengo emaitzetan parte hartu

Mutrikuko euskararen erabilera datuekin jolasean, eta aurrera begira zer?

Sakontze Egitasmoa

Beñat Urkiza Sesma, 2015eko uztaila

duten taldeak: Bertso Eskola, Gazte asanblada, Zine Forum, Txantxangorri aisialdi taldea, Bai Txo! Euskara taldea, EMA emakume taldea, Ernai gazte antolakundea eta Mutrikuko Rock Kolektiboa. Guztira, zortzi talde izan dira.

Aurreko emaitzetan ikusi den bezala, taldeek eman dituzten emaitzak kuantifikatu egin dira. Datuak interpretagarriagoak eta begi bistakoagoak izateko, emaitzak %etan eman dira (Ikus 4.eranskina).

Prozedura berdinarekin jarraituta, atal honetan ere inkestan sartu diren galderak banaka landuko dira.

	1. Galdera: Mutrikun euskararen kale erabilera %67,1 da. <u>Asko</u> ala <u>gutxi</u> da?		
	Lagin osoa	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Asko	%0	-	-
Gutxi	%100	-	-
Guztira	%100	-	-
23. Taula: taldekako 1.galderaren emaitzak			

Talde guztietako partaideei iruditzen zaie %67,1eko erabilera *gutxi* dela. Gainera, talde barruan erdararako joera dutenek ere, ez dute inolako zehaztapenik egiteko jarrerarik erakutsi. Aho batez esanda *gutxi* dela.

Norbanakoen inkestan, nahiz eta *gutxi* erantzunaren aldeko boto asko egon, emaitzak anitzagoak izan dira, baina taldeetatik %100ean hautatu da *gutxi* erantzuna.

Bi jende multzoren arteko desberdintasunak bilatzen hasita, agian, kontzientzia izan daiteke arrazoiertako bat. Egunerokotasunean, elkartetan lan egiten dutenek barneratuak dituzte euskararen balioak eta garrantzia.

Galdera horren harira, zenbait kasutan, egon da *asko* erantzuna eman duenik ere, baina gaizki ulertuengatik. Azalpenak ondo eman eta gero, *gutxi* erantzuna hautatu dute. Hau da, jendearen zalantza zen zenbateko hori Euskal Herri edo Mutriku mailan erantzun behar zen. Partaideentzako Euskal Herria osotasunean hartuta Mutrikuko kale erabilera datuak oso onak dira; aldiz, Mutrikun zentratuta, denek *gutxi* dela diote.

	2. Galdera: Mutrikun euskararen ezagutza %80-koa da. <u>Ezagutza</u> erabileraren arteko aldea <u>handia</u> ala <u>txikia</u> da?		
	Lagin osoa	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Handia	%100	-	-
Txikia	%0	-	-
Guztira	%100	-	-
24. Taula: taldekako 4.galderaren emaitzak			

Erantzun honetan ere berdina gertatzen da. Norbanakoen inkestan ez bezala, taldetako kideak, ezagutza eta erabileraren artean dauden 13 puntuen harira, oso zurrinak dira eta tartea *handia* dela esan dute %100ean.

Arrazoiak, aurrekoan modura, berdina izan daiteke; hau da, kontzientzia maila altua izatea eta bien arteko puntu desberdintasuna esanguratsu ikustea.

3. Galdera: **Zein da zuen euskarari buruzko diagnostikoa? Eta egoeraren zergatia?**

Galdera honetan taldeetako partaideei eskatu zitzaizen Mutrikuko euskararen datuei buruzko diagnostiko bat egitea edota egoeraren zergatiaz hausnartzea.

Eskakizunaren planteamendua hori izanda, taldeetatik jasotako erantzunak asko eta anitzak izan dira, baina guztiak pisuzkoak. Partaide batzuek hasieran datuak gezurrezkoak zirela pentsatzen zuten, beraien pertzepzioarekin bat ez zetorrelako, baina esan dute, nahiz eta aurreikuspen faltsuak izan, datuak horiek izanda ere ez dutela inolako justifikaziorik.

Horrez gain, talde askotako jendeari datuak oso baxuak iruditu zaizkie. Datuak horiek izatearen arrazoietako bat, beraien ustez, urtetako politika zehatz batzuen ondorioa da.

Halere, beste askotariko arrazoiak ere eman dituzte elkarrizketatuek, esaterako: *ohitura, moda, etorkinak, joera, edukazio gehiegizkoa, kontzientzia falta, interes falta, jakin eta erabili ez, beharrezkotasunik ez, erdaraz badakigula erakutsi nahi da*. Kasu honetan, eman dituzten erantzunak anitzak izan arren, gai batean nahiko zentratuak daude. Lortu diren argumentu guztiak edo gehienak norbanakoekin lotuak daude. Funtsean, lekukoek euskarari prestigiorik edo lehentasunik ez ematea egosten diete parte hartzaileek.

Hortaz, esan daiteke, datuen gainean egiten duten diagnosian edo hausnarketan, datuen txartasuna Mutrikuko biztanleen gain uzten dutela hein handi batean.

4. Galdera: **Euskararen planik edo programarik baduzue?**

Laugarren galdera honetan, taldeei ia euskara kontuan hartzen duen planik edo programarik baduten galdetu zaie. Euskarari dagokion funtzionamenduan edota antolakuntzan, talde barruan nola antolatzen diren ere ikusteko da.

Erantzunak nahiko bateratuak izan dira. Talde gehienek euskarazko irizpideak ezarrita badituzten arren, ez dituzte formalizatuak. Ahoz edo taldean

hitzez adostutako irizpideak dira. Talde bakarra izan da euskara plana baduela esan duena, gainontzekoek ez dute plan zehatzik.

Beste eragileek, nahiz eta formalizatu gabe izan, hutsune horren jakitun badira eta zenbait kasuetan, beharrezana egon denetan, tresnak bilatu eta erabili izan dituzte. Esate baterako, Bertso Eskolako irakasleek euskara arazoan aurrean Ttakun Kultur Elkarteak diseinatu eta martxan jarritako *Hezitzaileek asko egin dezakete* proiektuko teknikak erabiltzen dituzte.

5. Galdera: Euskara kontuan hartzen duzue zuen ekintzak aurrera eramateko orduan?

Bosgarren galdera honetan talde bakoitzak zein hizkuntzarekin lan egiten duen jakin nahi izan da. Taldeetako partaideak euskaldunak izanda, eta lehen eta bigarren galderetan erakutsi duten jarrera kontuan hartuta, jakin nahi izan da herrian eskaintza bat egiterako orduan zein hizkuntza erabiltzen duten.

Erantzunak askotakoak izan dira eta bakoitzak bere esparruari dagokiona erantzun du. Talde denek hartzen dute euskara kontuan beraien ekintzak aurrera eramateko orduan, modu naturalean eta beraien eskaintza esparruaren barruan. Batzuek eskaintza zabalagoa dute eta beste batzuek, aldiz, txikiagoa, baina eremu horretan euskarak badu bere tokia. Halere, elkarte batzuetako partaideak zehaztu dute euskararen presentzia ez dela mugatzen ekintzetara bakarrik, aurre lana eta ekintzaren sozializazio ere euskaraz egiten dela, esaterako: email bidezko harremana, sare sozialak, WhatsAppa... Funtsean, komunikazio alorra euskaraz egiten da.

Bestalde, musika eta zinematografia taldeko kideek esan dute, beraien lan esparrua edo eskaintza, murrizta bezain zabala den aldetik, beste hizkuntza batzuetan ere antolatzen dituztela gauzak, baina euskal merkatuaren gaineko ikuspegi kontzienteaz jabetzen direla.

6. Galdera: Zer egingo zenukete euskararen erabileraren datuak hobetzeko?

Galdera honetan, lehenengo bi galderetara itzuliz, taldeetako partaideei datuak hobetzeko proposamenak eskatu zaizkie.

Lekukoek esandakoen artean, gai askotakoak daude, ikuspuntu eta denbora aldetik eskakizun desberdina eskatzen dutenak. Hala eta guztiz ere, galderaren helburua ideiak jasotzea zen aldetik, eragiletako kideek ongi bete dute eskatutakoa.

Hurrenez hurren, ondorengoak dira talde elkarrizketatik ateratako proposamen aipagarrienak: *plan potente bat egin, eremu desberdinetan integratu, mintzalaguna, lehen hitza euskaraz, garrantzia eman, erakutsi, lan*

jarraitua, hutsuneak identifikatu eta irtenbideak bilatu, talde barruetako euskal giroa sustatu, etorkinei lagundu, arazoa herritarrek dute, norberaren esku dago, analisi bat egin, aldaketak barrutik datoz, egoera hau geuk onartzen dugu.

Idea guztien artean egin daitekeen sailkapena telefonozko inkesta bidez egin denaren berdina da (Ikus 11.irudia). Hemen ere *jarrerak, prestigioak, formakuntzak eta baliabide beharrak* dute proposameneren artean protagonismorik handiena.

Ikuspegi edo diagnostiko horrek abantailak eta desabantailak ditu. Alde batetik, abantaila da taldeen eta norbanakoen euskararekiko hutsuneak antzekoak direla eta lanketa bat egin behar bada errazagoa izango dela; eta, bestetik, desabantaila da, oreka horren barruan, hainbat esparru geratu direlako ikertu edo hausnartu gabe. Hala ere, orokorrean hasiera diagnostiko baterako eta, lanean hasi nahi bada, ekinean hasteko nahikoa proposamen dira.

Taldeetatik lortutako proposameneren artean, lekukoek argi dute baliabideak eta formakuntza garrantzitsuak izateaz gain, pertsonak eman behar duela aldaketa. Elkarre batzuetako kideen ustez, aldaketaren gakoa gizabanakoak egin behar du: lehen hitza euskaraz eginaz, garrantzia emanaz, norberaren jarrera erakutsiaz...

Bestalde, beste taldetako batzuek proposamenak gauzatu ahal izateko plan egonkor eta bideragarri baten beharra ikusten dute. Plan horretan, euskara ardatz hartuta, herrirako eta herriarentzat egon litezkeen hutsuneak identifikatzea errazagoa izango litzateke.

7. Galdera: Egindako proposamenak aurrera joanez gero, ekintzetan eta proiektuetan parte hartuko zenuketen?

Galdera honetan taldetako kideei egoera hipotetiko baten jarri zitzaion. Plazaratu zitzaion egoera hau izan zen: imajinatu ezazue, udaletxean edo udaletxetik kanpo, euskara ardatz izango duen herri mailako talde bat sortzen dela, zuek bertan zuen taldea ikusten duzue? Honekin taldeek zuten parte hartze borondatea zein den ikusi nahi izan da, ea elkarlanerako zein jarrera duten.

Planteamendua hori izanda zortzi taldeek ez diote uko egin elkarlanari. Denak bakoitzak bere esparrutik lan egingo zutela esan eta elkarre arteko harremana beharrezkoa zela azpimarratu zuten. Beraien esanetan, herri mailako talde horretan denek denek lana egiteak erritmoa motelduko luke. Interesgarriena bakoitzak bere esparrutik lan egitea izango litzateke; horrela, talde bakoitzak euskarari dimentsio berri bat emango lioke.

Bukaerako hausnarketa baten, talde bateko lekuko batek esan zuen horrelako egitasmo bat aurrera eramateko eragiletako kideek batzeko beharra

sentitu behar dutela, bestela ez dela gauzatuko. Gainera, kontuan hartuta zenbait taldetan lan egiten duten kideen kopurua urria dela.

8. Galdera: Zuek antolatutako euskarazko ekintzetan jendeak parte hartzen du?

Zortzigarren galdera ere parte hartzearekin lotutakoa da, baina, aurrekoa ez bezala, taldeek beraiek antolatzen dituzten ekintzetan izaten dutena ikusteko.

Taldetako kideen hitzetan, orokorrean, parte hartzen duen jendea kontzientziaduna da eta interes zehatz batekoa. Kopuru aldetik ere, inork ez du esan jende asko hurbiltzen denik.

Ikerlaneko elkarrizketetan sartu diren talde batzuk berriak dira herrian eta kideek diote, oraindik ez dutela lortu inguruan protagonismoa lortzea. Halere, ez da kasualitatea, lanean urteak dabiltzan taldeetakoak ere parte hartzearekin arazo berdinak izatea.

Horrez gain, talde batek duen parte hartze arazoa ez du hizkuntza arazoarekin lotzen. Arazoa hori izan zitekeelakoan, bat bateko itzultzaile eskaintza ere eman izan dutela aipatu dute.

Orokorrean, nahiz eta Mutriku kulturalki eta sozialki herri aktiboa izan, jendearen aldetik jasotzen duten erantzuna ez da, beti, nahi bezalakoa izaten. Harritzekoa da alor desberdinetako taldeek arazo bera izatea.

9. Galdera: Mutriku aurrera begira euskarak ze bilakaera izango duela uste duzue?

Azken galderan taldetako parte hartzaileei, etorkizunera begira, hausnarketa bat egitea eskatu zitzaaien. Gogoeta horretan euskarak Mutriku ze bilakaera izango duen pentsatzea eskatzen zitzaaien. Talde desberdinetako kideak, hein handi batean, ados datoz eta ez, justu, euskararen normalizazioaren bideari dagokionez.

Lekuko horiek esan dutena garrantzitsua da eta, agian, argazki baliotsua izango da, euskararekin modu aktiboan egiten dutelako lana.

Zortzi taldetik bakar batek ditu euskararen bilakaeraren gaineko sententziak positiboak. Beste guztiak, ordea, euskararen erabilera eta ezagutza mantendu edo jaitsi egingo dela uste dute.

Arrazoi horiek frogatzeko, eman dituzten argumentuak anitzak izan dira: *komunikabideek indar asko dute, erdara gero eta gehiago gazteetan, kirolean erdara asko, lagunekin erdaraz etxean euskaraz, hizkuntza identitate bezala ez da transmititzen, euskara=ikastetxea, eusteko planteamendu zehatz eta sendoa*

Mutrikuko euskararen erabilera datuekin jolasean, eta aurrera begira zer?

Sakontze Egitasmoa

Beñat Urkiza Sesma, 2015eko uztaila

behar da, konfiantzarik ez, konpontzeko jarrerarik ez, garrantzirik ez, identitatearen erdia eta egunerokoan ez, munduak ekonomiaren arabera funtzionatzen du; puntu baten euskaraz erabili behar den edo ez galdetzen bada; euskararen heriotza etorriko da. Euskararen alde egotetik zerbait egitera pasa behar da. Motxila erdalduna dugu! Beste hizkuntzetan kontsumitzen dugu. Gune berriak sortu behar dira.

Gogoetak askotarikoak dira eta oso interesgarriak bezain beldurgarriak. Lekuko horiek gizabanakoak duen betebeharraren garrantziaz hausnartu dute.

Partaideen esanetan pesimismo edo ezintasun kutsua nabari da, denak oso mezu ezkorrak direlako. Horrek ez du esan nahi errealitatek oso urruti daudenik, baina ikuspegi horri ere buelta emateak bere denbora beharko du.

Ideietan nabari dena da, batetik, mundu globalizatu honetan, euskarak bere gain oso gutxi duela egiteko; eta, bestetik, euskararen hiztunek ere ez diotela behar besteko atentziorik edo interesik jartzen.

Bigarren arrazoi hori kontzientziadun jende apur baten esku geratzen da. Horregatik, lekukoek esan duten bezala, jarrera aldaketa bat behar da. Ez da nahikoa euskararen alde egotea; gaur egun, gizarte osoa dago alde. Hortik aparte, zerbait gehiago egiteko beharra azpimarratu dute. Ostera, taldetako kide horien aldetik ez dute ikusten ez jarrera eta ezta behar duen garrantzirik ematen zaionik ere. Talde bateko kide batek elkarrizketan esan zuen bezala, onartu egin behar da motxila edo bizipen erdaldunak ditugula eta beste hizkuntzetatik kontsumitzen dugula, baina hori hausnartu eta bakoitzak argi izan behar ditu zeintzuk diren norberaren lehentasunak. Kideak dio, hori egin ezean aldaketarik ez dela emango.

Lehenengo arrazoiak, aldiz, euskararen mundutik kanpo dagoen zerbait erakusten du. Lekukoek komunikazioa, hizkuntzaren ekonomia, transmisioa, interesak, identitatea... bezalako gaiak aipatu zituzten.

Hausnarketa interesgarriak dira eta, nahi izanez gero, euskararen bilakaeran gogoeta egin beharreko gaiak ere bai. Martxan dabiltzan jende honengan interesa piztu du edota, agian, ez dira konturatuko gai horietaz hizketan dabiltzanik ere; hortaz, Mutrikuko hizkuntza egoeratik urrun badaude ere balekoak izan daiteke gai horietaz lanketa egitea.

Lekukotako batek esaten zuen mundua ekonomiaren menpe dagoela, eta ez beti finantza ekonomiaren menpe. Bere hitzetan, norbanakoa euskara erabili behar duen edo ez pentsatzen hasten bada, hizkuntzaren heriotza etorriko da hurrena. Ondorioz, horrek beste lekuko batek esandakoa indartzen du; hau da, gaur egun, euskara ez dela identitate hizkuntza bezala transmititzen, gainontzeko beste hizkuntza bat bezala baizik. Horrek guztiak,

euskaraz, hizkuntzaz edota munduaz eztabaidatzera darama interesatua. Erabaki beharko da interesik eta denborarik badagoen hori egiteko.

4.3. Aditu taldean esandakoak:

Adituen taldeko hitzorduan gauzak asko eta desberdinak esan ziren. Horrelako solasaldiek asko dute pertsonaletik eta esandakoa laburbiltzeko, egokiena, abentura eta esperientzia horiek kentzea izan da.

Hitzorduaren mamia zati desberdinetan banatu nahi zen (Ik. 5.eranskina). Halere, berriketaldiaren nondik norakoak eskema bidez zehaztuta egon arren, eztabaidak beste leku batzuetatik ere eraman zuen haria.

Hortaz, emaitzen atal honetan gai zehatz batzuen inguruan esandakoak aipatuko dira: pertzepzioa, ikerlaneko emaitzak, hutsuneak, proposamenak.

4.3.1. Pertzepzioa:

Ikerlanean ikusi diren emaitzen gaineko pertzepzioa desberdina da aditu bakoitzaren arabera, baina, aldi berean, esanguratsutzat jo zuten belaunaldien edota generoen arteko aniztasuna.

Mutrikuko herria kontzientzia aldetik erlaxatuegia ikusten zuten adituek. Beraiek zioten herri euskaldun gehienetan ikusten zela hori. Bestalde, kontzientziadun herria izatea zer zen ere atera zen mahai gainera: kalean argi ikusten denean euskara lagun arteko hizkuntza bakarrik ez dela edota belaunaldien artean alderik ez dagoenean.

Mutrikuko euskalduntasuna, kanpotik begiratuta, belaunaldiz belaunaldi asko aldatu dela eta aldatzen ari dela azpimarratu zuten. 60.hamarkada arte, gutxi gorabehera, Mutriku herri trinkoa zen, baina barrualdetik Extremadurako jendea eta itsasotik Galiziako jendea etortzen hasi zenean biguntzen hasi omen zen herria. Beste aldagai batzuk eragina izango zutela esan bazuten ere, aldaketa nagusia kanpoko herritarrak eragin dutela esan zuten.

Belaunaldien aniztasunaz gain, eredu aldaketa bat ere eman dela adierazi zuten. Horrek gizartea eredu berrantolatzea ekarriko die hurrengo belaunaldiei eta kanpotik jasotako input guztia ondo kokatu beharko dela esan zuten. Gizartearen eredu aldaketa, besteak beste, telebistak, prentsak, irratiak, Internetek... ekarri dutela esan zuten eta alor horietan euskararen produkzioa oso urria dela jakitun ziren parte hartzaileak.

Bukatzeko, aldaketak naturalak direla esan zuten, baina eragina ezin izan dela kalkulatu. Aniztasunak; hau da, mutrikuar hutsak ez izateak, joeretan, erabileran eta prestigioan, batez ere, aldaketak ekarri ditu.

4.3.2. Ikerlaneko emaitzak:

Inkestatan parte hartu zuten lekukoek eta talde desberdinetako kideen aldean, adituak zuhurragoak dira Soziolinguistika Klusterrak egindako euskararen kale erabileraren azterketaren datuen inguruan. Hitzorduan zalantzan jartzen zen %67,1 hori emaitza ona edo txarra zen.

Adituek lekukoek erabileraren emaitza txartzat jotzearen atzean, beste arrazoi batzuk egon zitezkeela ere komentatu zuten, esaterako ondorengo hauek:

- Adin tarte nagusienekoen, beharbada, Mutriku oso euskalduna ezagutu zuten, eta gaur egungoarekin alderatuta %67,1eko emaitza txikia iruditzen zaie.
- Beharbada, Mutriku etengabe erdalduntzen ari da eta hori ikusteko datu soziolinguistikoetara joatea besterik ez dago. Adibidez, etxeko erabilera aitortua euskara zen %68tan 1986an, eta %57 2011n; lehen hizkuntza euskara zuten mutrikuarren %81ek 1986an, eta %71k 2011n. Bilakaera negatibo batean sartuta daude euskararen emaitzak eta herritarren igarri egiten dute hori.
- Mutrikun badago elkarrizketa baten barruan euskara eta gaztelania nahastean sartzeko ohitura. Halere, mota horretako ohituradunak ez dira konturatzen gaztelaniaz ari direla.
- Kultur eragileen jarduna euskaraz da %100ean; hortaz, normala da %67,1eko emaitzaren aurrean emaitza txikia dela esatea. Autozentratuta daude.
- Erabilera %67,1ekoa izan eta herritarren portzentaje txikia dela esatean, Mutriku euskaldun baten nahia dagoela irudikatu daiteke. Euskara herriarena sentitzen dutela.

Adituek errealitate bat bezala ikusten zuten eta askotan herriko beste egoera batzuekin alderatzen zuten. Hau da, parte hartzaileek herriko beste esparruetan jendeak zuen jarrera eta aldaketa nahia ikusita, zenbaitek arruntak ikusten zituen emaitzak, ez bakarrik erabilerarenak.

Orokorrean kontzientziari botatzen zitzaion errua, baina ez beti kutsu negatiboarekin. Adituek azpimarratzen zuten, lekukoek garbi esaten zutela %67,1 gutxi zela eta horren aurrean, adibidez, parte hartzeko borondate handia

erakusten zutela emaitzek. Hala ere, egunerokoan ez zetorren bat errealitatearekin. Hori dela eta, adituek kontzientzia orokor falta bat zegoela esaten zuten.

Kontzientzia lanketa bat egitearekin batera, lekukoen proposamenetan aipatzen zen parte hartzea sustatzeko euskara ardatz izango lukeen talde dinamika handi bat egitea ontzat hartu zuten adituek. Horrela talde desberdinen artean euskararen dinamika konprometitu bat martxan jartzeko aukera egongo zela esan zuten. Horren ostean, taktika eta estrategia zein izan beharko litzatekeen ikusi egin beharko zela azpimarratu zuten.

Adituak beste datu batek harritu zituen, parte hartzearena. Ikerketan gizonetzkoak parte hartzearen aldeko jarrera positiboagoa erakutsi zuten emakumezkoek baino, eta hitzorduan komentatu zen errealitatea beste bat zela. Azken hamarkadetan, arrazoi desberdinak tarteko, parte hartzaileek esan zuten emakumezkoak kulturgintzara egon direla lotuak eta gizonak, aldiz, politika edota kirolera. Alabaina, gaur egungo gizartearen aldaketa dela eta, norbanakoak emateko baino gehiago hartzeko zeudela aipatu zuten. Adituek esan zuten, erosotasuna aitzakiatzat hartuta, jendeak ez duela beharrik ikusten beraien denbora euskalgintzan inbertitzeko.

4.3.3. Hutsuneak:

Hutsune nagusia da mutrikuarentzat euskara edota hizkuntza bera ez dela arazo bat, ez dute horretan pentsatzen. Horren aurrean heziketa eta hezkuntza beharra dago jendarteak ez duelako euskararen inguruan hitz egiten. Euskarak instituzioetan eta agenda desberdinetan bere lekua izan beharko lukeela adierazi zuten adituek. Modu horretara, euskararen gaia sozializatu beharko litzatekeela uste dute parte hartzaileek, eta 2014ko irailean kale erabilera datuak aurkeztu ziren bezala, gisa horretako neurketek jarraipena izan beharko luketela azpimarratu zuten.

Bestalde, sentsibilizazio eta inguru desberdineko herritarrekin erritmo eta ibilbide desberdinak egitea aipatu zen. Orokorrean hiru azpimultzo hauek aipatu ziren:

- Euskalduntasunarekin indartsu dagoen jendea: Horiek mantendu eta indartu egin behar dira. Herriko euskalgintzaren motorra izango dira.
- Euskalduntasunarekin erdi ahaztuta dabilen jendea: Horiek animatu egin behar dira berriro euskararen mundura hurbiltzeko.

- Euskalduntasuna ahul duten jendea: Horiek indarra behar dute salto kualitatibo hori emateko, eta hor indartsu daudenen laguntza beharko dute.

Orokorrean, kontzientziazio falta ikusten zuten adituek eta hori esparruka landu zitekeela esaten zuten: etorkinekin, merkatariekin, kirolean, guraso taldeekin... Guztiei eman zieten garrantzia eta egingarritasuna ere positibotzat jo zuten.

Beste hutsune bat turismoa zela esan zuten. Mutrikuk herri arrantzalea izatea utzi zionetik, indarrak turismoan egon dira zentratuta. Hori dela eta, Geoparkearen proiektua, hasiera baten, hizkuntzarekin loturarik izan ez arren, hizkuntzarekin lotu daitekeela ikusten zuten. Betiere, kanpotik zetorren jendeak herri honetan beste hizkuntza bat ere hitz egiten zela jakin zezan. Halere, horrekin arduratzen diren pertsonekin lanketak eta sentsibilizazio kanpainak egin beharko zirela ere aipatu zuten. Turismoarekin batera, arazo berdina identifikatu zuten hirigintza proiektuekin. Azken urtetan kanpo jende asko etorri da Mutrikura bizitzera eta etxe berriak ere egin dira. Hortaz, hizkuntza kalteak gutxiagotzeko neurri prebentiboak eta informatiboak hartu beharko liratekeela azpimarratu zen etorkizuneko eraikinentzat eta biztanleentzat.

Azken hutsune gisa, hizkuntza paisaia identifikatu zuten. Lan ildo horretan jendearen nolakotasuna kontuan hartu behar zela esan zuten. Bestalde, planak edo proiektuak egiterakoan euskalduntasuna indartsu zutenak lagundu beharko luketela ere esan zuten. Horrez gain, beste lan esparru batzuei aipua eginik, esan zuten Mutrikun kirolak duen garrantzia kontuan hartuta gai horri eskua sartu beharko litzaiokeela. Hirigintza planak egiten diren bezala, talde barrutan euskara kontuan hartu beharko litzatekeen irizpideak markatu edota horietaz eztabaidatu beharko litzatekeela uste zuten parte hartzaileek.

4.3.4. Proposamenak:

Proposamenei dagokienez, ekintzak pentsatzea ez zen erraza izan. Halere, ekintza zehatzak egituratzea baino, garrantzitsuagoa izan zen adituak egoeraz jabetu eta horri bueltak ematen jartzea.

Zehaztasunetan sartu baino lehenago aipatu zen Mutrikuko euskalgintza, askotan, unean uneko loreak jaurtizera zegoela ohitua. Agian, dauden baliabideak eta mugimendu potentziala kontuan hartuta erreala izan zitekeela ere esan zen, baina aurrera begira zerbait antolatuagoa izan beharko litzatekeela hausnartu zen. Hau da, egiten diren gauza denak lotura izatea bata bestearekin eta herritarren aurrean egiten diren planteamenduak arrotzak ez

izatea, baizik eta parte hartzaileak. Hala eta guztiz ere, ikerlanean lekukoek aipatzen zituzten proposamen batzuk egingarriak eta onak zirela aipatu zuten.

Funtsean, eguneroko lanak eta konpromisoek balio zutela esan zuten parte hartzaileek, jakinda herrian badirela hainbat talde horretan dabilzanak. Hortaz, lehenengo pausua talde horiekin batu eta eztabaidak izatea izango litzateke. Hortik aurrera, betiere herritarrak ardatz izanda, plan desberdinak diseinatu ahalko liratekeela hausnartu zuten.

Adibidez, kirol eta guraso elkarteetan jende potentzial handia mugitzen denez, euskara kontuan hartuko luketen irizpideak jartzeko prest egongo liratekeen eztabaidatu beharko litzatekeela adierazi zuten. Horren aurretik, jakina, sozializazio eta hurbiltze graduatu bat egon beharko litzateke, euskalgintza eta beste hainbat alorretatik hurbiltzea ez bada ondo egiten uxatzeko joera handia sortzen delako.

Azkenik, Mutriku euskararekin konprometitzeko beharra ikusi zuten adituek, bakoitzak bere alorretik eta ahalmenaren arabera. Horretarako, ezer gutxi zehaztu zen arren, konpromisoak betetzeko hartzen diren mezua sozializatu behar zela esan zuten. Halere, gehienetan euskalgintza oso ekintzailea dela esan zuten eta askotan buruan helburuak irudikatu bai, baina betetzen ez direla aipatu zen. Horretarako, zenbait kasutan, euskarak inbertsioa behar duela hausnartu zen, adibidez, marketing-ean aditua den jendearena. Modu horretara, planak hamar puntu baditu eta ekintzailetasunaren ondorioz bigarrenean hanka sartu aurretik, laguntza espezializatua beharrezkoa izan zitekeela esan zen.

5.- ONDORIOAK

Ikerketa Mutrikun egindako euskararen kale erabileraren inguruko azterketa batek eman zituen emaitza batzuetatik abiatu zen. Emaitza horietan Mutrikun euskara kalean %67,1 erabiltzen zela ikusten zen eta ikerlana bide horretatik enfokatu zitekeen aukera sortu zen.

Lanean helburu batzuk sortu ziren eta uste da helburu horiek, gutxienez, bete direla. Proiektuak hasieran beste itxura bat zuen, zehaztu ostean finkatu ziren irizpideei leial jarraitu dio egitasmoak. Ikerlana martxan jarri aurretik ezarri ziren lanaren bi zatiak hauek dira: alde batetik, herritarrei eta herrian boluntario lanean dabilzanei euskararen egoeraz galdetzea; eta, bestetik, herritarrek esandakoarekin diagnostiko bat egin eta emaitza horiek, aditu talde baten laguntzaz, euskara plan batek izan beharko litzatekeen irizpide nagusietan kokatzea.

Datu guztiak lortu eta pixka bat hozten utzita, perspektiba batetik begiratuta badirudi hasirako irizpide horiek lortu direla. Lehenengoari dagokionez, datuak lortzeko bi modu desberdin erabili ziren: bata, telefono bidezko inkesta; eta, bestea, herriko kultur eta eragileekin solasaldiak izatea. Modu horretara, eta lanean parte hartu duten lekuko kopurua kontuan hartuta, uste da lortu diren emaitzak fidagarriak eta aberasgarriak direla. Datuek gauza desberdinak erakutsi dituzte; funtsean, telefono bidezko inkestak herritarrek nola pentsatzen duten jakiteko balio izan du, eta eragileen solasaldiek, aldiz, egunerokoan lanean dabiltzan jendeak ikusten dituen hutsuneak identifikatzeko. Biak ala biak ikerlan honetan beharrezkoak ziren.

Bigarrenari dagokionez, lehenengo atalaren bidez lortutako emaitzak erabili dira. Telefonozko inkestatik eta kultur elkartetako kideekin izandako solasaldietatik batutako materialarekin diagnostiko bat egin zen. Gainera, datu kopuru horrek herritarrek euskararen inguruan uste eta hausnartzen zutena jasotzeko balio izan du, eta, ondoren, aditu talde batek borobiltasuna eman dio bildutakoari. Aditu taldearekin izandako hitzorduan askotariko gaiak landu ziren, hausnarketa pertsonaletatik hasita diagnostikoan herritarren pertzepzioaren inguruan esandakoak eztabaidatzeraino. Funtsean, atal honetan garrantzitsuena euskara plan baten barruan egingarrian ziren lan ildoak zehaztea zen eta adituek markatu zuten nolabaiteko bide orri bat. Hala ere, oinarritzkoena antolakuntza eta babesa zirela azpimarratu zuten; hau da, euskalgintza ezin dela momentuko suziriez bizi eta horretarako lanketa sakonak eta organizatuak behar direla. Kasu honetan ere, adituen ekarpena gakoa izan da lanaren helburuak lortzerako orduan.

Orokorrean, lanerako finkatu ziren helburuak bete dira eta aurrera begira, ikerlan hau euskara plan baten aurre lanketa besterik izango ez denez, ate eta aukera guztiak irekita daude herrian eta herritarren beharretan oinarritutako egitasmo bat egiteko.

Mutrikun euskarak esparru guztietan presentzia, prestigioa eta beharrezkotasuna lortzeko herriko euskaldun guztien babesa eta parte hartzea behar du. Bide horretan, ikerlan hau aurrera pauso da, ez besterik. Modu parte hartzailean lan eginda eta eztabaidatuta Mutriku euskaldunago bat egitea posible izango da.

6.- BIBLIOGRAFIA

- Amonarriz, K. (1991). *Euskararen erabilpenaren kale neurketen inguruko gogoetak*. *Bat Soziolinguistika aldizkaria* 3-4 (39-50).
- Casares, P. (2013). *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Doktorego Tesia. Nafarroako Unibertsitate Publikoa (2013ko uztailaren 4an, Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika Sailean irakurria).
- Erriondo, L.; Altuna, O. eta Suberbiola, P. (2015). *Diagnosirako egungo garapen teknikoak*. Hiznet-Hizkuntza Plangintza graduondoko ikastaroa 2014-2015 (on-line). EHU eta Asmoz Fundazioa.
- Fishman, J. A. (1979). *Sociología del lenguaje*. Madrid: Cátedra.
- Giddens, A. (2007). *Sociología*. Madrid. Alianza Ed.
- Iurrebaso, I. (2014). *Udalerrri euskaldunak EAEn: egoera eta bilakaera 1981-2011*. Soziolinguistika Klusterra. Martin Ugalde Parkea: Andoain.
- Martínez de Luna, I.; Suberbiola, P. eta Basurto, A. (2009). *Ikasleen eskola giroko hizkuntza erabileraren azterketa*. Eusko Jaurlaritzako Gobierno Vasco: Vitoria-Gasteiz.
- Martínez de Luna, I. (2015). *Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak*. Hiznet-Hizkuntza Plangintza graduondoko ikastaroa 2014-2015 (on-line). EHU eta Asmoz Fundazioa.
- Martinez, Z.; Berrio-Otxoa, K.; Altuna, O.; Jausoro, N. (2015). *Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak*. Hiznet-Hizkuntza Plangintza graduondoko ikastaroa 2014-2015 (on-line). EHU eta Asmoz Fundazioa.
- Morales, P. (2012). *Tamaño necesario de la muestra: ¿Cuántos sujetos necesitamos?*. Universidad Pontificia Comillas. Facultad de Humanidades: Madrid.
- Soziolinguistika Klusterra. (2014). *Mutrikuko hizkuntza-erabileraren kale neurketa*. Martin Ugalde Parkea: Andoain.
- Soziolinguistika Klusterra. (2014). *Datu soziolinguistikoen bilduma. Mutriku 1986-2011*, Martin Ugalde parkea: Andoain.
- Urkiza, B. (2014). Aldagai soziolinguistikoen bidez aztertuta: Mutrikuko Azentuaren Bariazioa. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 92-93: Andoain.
- Zuazo, K. (2008). *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Elkar: Donostia

7.- ERANSKINAK

1. Eranskina:

Mutrikuko euskararen kale erabileraren pertzepzioa eta aurrerabideak		
Generoa: G <input type="checkbox"/> E <input type="checkbox"/>	ERANTZUNAK	
Adina:	ASKO/HANDIA	GUTXI/TXIKIA
Mutrikun euskararen kale erabilera %67,1 da. Asko ala gutxi da?		
Mutrikuko euskararen ezagutza %83 da. Ezagutza eta erabileraren aldea handia ala txikia da?		
<i>*Erantzunak horretarako aukera emanaz gero.</i>	PROPOSAMENAK	
Zer egingo zenuke euskararen erabileraren datuak hobetzeko?	-	-
	-	-
	PARTE HARTZEA (BAI/EZ)	
Egindako proposamenak aurrera joanez gero, ekintzetan eta proiektuetan parte hartuko zenuke?		

2. Eranskina:

MUTRIKUKO EUSKARAREN KALE ERABILERAREN PERTZEPZIOA ETA AURRERABIDEAK		
ERAGILENTZAKO ETA TALDEENTZAKO INKESTA	ERANTZUNAK	
	ASKO/HANDIA	GUTXI/TXIKIA
Mutrikun euskararen kale erabilera %67,1 da. Asko ala gutxi da?		
Mutrikuko euskararen ezagutza %83 da. Ezagutza eta erabileraren aldea handia ala txikia da?		
	EGOERAREN INTERPRETAZIOA	
Zein da zuen euskarari buruzko diagnostikoa? Eta egoeraren zergatia?	- - - -	- - - -
	EUSKARAREKIN LOTURAKO PLANA	
Euskararen planik edo programarik baduzue? Euskara kontuan hartzen duzue zuen ekintzak aurrera eramateko orduan?		
<i>*Erantzunak horretarako aukera emanaz gero.</i>	PROPOSAMENAK	
Zer egingo zenukete euskararen erabileraren datuak hobetzeko?	- - - -	- - - -
	PARTE HARTZEA (BAI/EZ)	
Egindako proposamenak aurrera joanez gero, ekintzetan eta proiektuetan parte hartuko zenuketen?		
Zuek antolatutako euskarazko ekintzetan jendeak parte hartzen du?		
	SENTSAZIOAK	
Mutrikun aurrera begira euskarak ze bilakaera izango duela uste duzue?	- - -	- - -

Mutrikuko euskararen erabilera datuekin jolasean, eta aurrera begira zer?

Sakontze Egitasmoa

Beñat Urkiza Sesma, 2015eko uztaila

3. Eranskina:

EMAITZAK																				
Adin-taldeak + Kopuruak (E+G)	18-29 (20+20)				30-44 (50+50)				45-54 (45+45)				55-64 (40+35)		65> (30+25)					
Generoa	E		G		E		G		E		G		E		G					
ERABILERA	A	Gu	A	Gu	A	Gu	A	Gu	A	Gu	A	Gu	A	Gu	A	Gu				
Mutrikun euskararen kale erabilera %67,1 da. Askok ala gutxi da?	%20 (4)	%80 (16)	%20 (4)	%80 (16)	%28 (14)	%72 (36)	%22 (11)	%78 (39)	%22,2 (10)	%77,7 (35)	%31,1 (14)	%68,8 (31)	%15 (6)	%85 (34)	%31,4 (11)	%68,6 (24)	%20 (6)	%80 (24)	%20 (5)	%80 (20)
EZAGUTZA	H	T	H	T	H	T	H	T	H	T	H	T	H	T	H	T	H	T	H	T
Mutrikun euskararen ezagutza %80-koa da. Ezagutza erabileraren arteko alde handia ala txikia da?	%85 (17)	%15 (3)	%85 (17)	%15 (3)	%66 (33)	%34 (17)	%68 (34)	%32 (16)	%66,6 (30)	%33,3 (15)	%62,2 (28)	%37,7 (17)	%70 (28)	%30 (12)	%54,28 (19)	%45,71 (16)	%53,3 (16)	%46,6 (14)	%64 (16)	%36 (9)
PROPOSAMENAK	*Inkesta bidez jaso diren proposamenak																			
Zer egingo zenuke euskararen erabileraren datuak hobetzeko?	Inkesta bidez jaso diren proposamenak ez dira landuak eta hausnarketa handikoak izan. Erantzun guztietatik bik esan dute EZER ez zutela egingo. Bieta arrazoi desberdinak: <i>bota, euskara ondo ikusten du; eta, bestea, berak ez duela herrian ezer egiteko beharrik ikusten, gauza txikiak eginga ez delako ezer lorzen.</i> Jasotako proposamenen artean, esaterako: <i>hitzaldiak, ikastaroak, euskara ikasteko aukera doan, kontzientzia, lehen hitza, norberaren esku dago, gazteekin lankeza bereziak, guraso gazteekin lankeza bereziak, mintzaloguna, euskal komunikabideak sustatu, pertsona erreferentzialak aurkitu koordinetan, euskararen promozioa, prestigioa, udaltxea eredu, etorkinei baliabideak eman, dendetako errotulazioa euskaraz, ohitura kontua, motibazioa piztu, txikitzea euskaldundu...</i>																			
PARTE HARTZEA	B	E	B	E	B	E	B	E	B	E	B	E	B	E	B	E	B	E	B	E
Egindako proposamenak aurrera joanez gero, ekintzetan edo proiektuetan parte hartuko zenuke? Bai ala Ez.	%90 (18)	%10 (2)	%80 (16)	%20 (4)	%66 (33)	%34 (17)	%68 (34)	%32 (16)	%68,8 (31)	%31,1 (14)	%66,6 (30)	%33,3 (15)	%50 (20)	%50 (20)	%62,8 (22)	%37,1 (13)	%50 (15)	%50 (15)	%56 (14)	%44 (11)

4. Eranskina:

TALDEETAKO INKESTAREN EMAITZAK		
	ERANTZUNAK	
	ASKO/HANDIA	GUTXI/TXIKIA
Mutrikun euskararen kale erabilera %67,1 da. Asko ala gutxi da?	%0	%100
Mutrikuko euskararen ezagutza %80 da. Ezagutza eta erabileraren aldea handia ala txikia da?	%100	%0
EGOERAREN INTERPRETAZIOA		
Zein da zuen euskarari buruzko diagnostikoa? Eta egoeraren zergatia?	<p>Datuak hasieran gezurrezkoak zirela pentsatu. Emaitzak ezin dira justifikatu.</p> <p>Datuak oso bajuak. Atzean politika zehatz batzuk daude.</p> <p>Zergatiak: <i>ohitura, moda, etorkinak, joera, edukazio gehiegizkoa, kontzientzia falta, interes falta, jakin eta erabili ez, beharrezkotasunik ez, erdaraz badakigula erakutsi nahi da.</i></p>	
EUSKARAREKIN LOTURAKO PLANA		
Euskararen planik edo programarik baduzue?	Talde batek esan du garbi baduela euskara plana, beste zenbaitek irizpide batzuk bai, baina ezer zehatzik ez.	
Euskara kontuan hartzen duzue zuen ekintzak aurrera eramateko orduan?	Denek hartzen dute kontutan euskara zerbait antolatzerakoan. Modu naturalean. Ekintzak bakarrik ez, komunikazioa+sare sozialak euskara hutsean. Musikan eta zinematografian eskaintza beste hizkuntza batzuetan ere egiten da, baina euskal produktuak eskaintzeko kontzientzia badago.	
*Erantzunak horretarako aukera emanaz gero.	PROPOSAMENAK	
Zer egingo zenukete euskararen erabileraren datuak hobetzeko?	<p>Adibideak: <i>plan potente bat egin, eremu desberdinetan integratu, mintzalaguna, lehen hitza euskaraz, garrantzia eman, erakutsi, lan jarraitua, hutsuneak identifikatu eta irtenbideak bilatu, talde barruetako euskal giroa sustatu, etorkinei lagundu, arazoa herritarrek dute, norberaren esku dago, analisi bat egin, aldaketak barrutik datoz, egoera hau geuk onartzen dugu.</i></p>	
PARTE HARTZEA (BAI/EZ)		
Egindako proposamenak aurrera joanez gero, ekintzetan eta proiektuetan parte hartuko zenuketen?	Talde handi bat egingo balitz: bakoitzak bere alorretik la egingo luke. Talde bakoitzak euskarari dimentsio bat gehiago gehituko lioke. Denak prest, baina horretarako batu beharra sentitu behar da. Errealistak ere badira batzuk, taldean jende gutxi direla esaterakoan.	
Zuek antolatutako euskarazko ekintzetan jendeak parte hartzen du?	Jende helduak bai, gazteak ez (alderantziz ere bai). Gutxi betikoak eta datozen berriak keatzeko. Nahi baino gutxiago, kontzientziadunak. Talde batzuk berriak dira eta oraindik herrian ez dira ezagutarazi. Parte hartzeko borondatea badago, gero gauzatzen den edo ez beste kontu bat da. Jendeak ez parte hartzea ez da hizkuntza arazoa. Betiko jendea da kontsumitzen duena.	
SENTSAZIOAK		
Mutrikun aurrera begira euskarak ze bilakaera izango duela uste duzue?	Talde bakar batek ditu sentrazio positiboak. Beste guztiek erabilera mantendu edo jaitsi egingo dela esaten du. Arrazoiak: <i>komunikabideak indar asko, erdara gero eta gehiago gazteetan, kirolean erdara asko, lagunekin erdaraz etxean euskaraz, hizkuntza identitate bezala ez transmititzen,</i>	

Mutrikuko euskararen erabilera datuekin jolasean, eta aurrera begira zer?

Sakontze Egitasmoa

Beñat Urkiza Sesma, 2015eko uztaila

	<p><i>euskara=ikastetxea, eusteko planteamendu zehatz eta sendoa, konfiantzarik ez, konpontzeko jarrerarik ez, garrantzirik ez, identitatearen erdia egunerokoan ez, munduak ekonomiaren arabera funtzionatzen du; puntu baten euskaraz erabili behar den edo ez galdetzen bada; euskararen heriotza etorriko da.Euskararen alde egotetik zerbaitegitera pasa behar da. Motxila erdalduna dugu! Beste hizkuntzetan kontsumitzen dugu. Gune berriak sortu behar dira.</i></p>
--	--

5. Eranskina:

Mutrikuko euskararen erabilera datuekin jolasean, eta aurrera begira zer?
Aditu taldearen solasaldia

HITZORDUAREN EGITURA:

- **AURKEZPENAK.**
 - *Datu pertsonalak*
 - *Euskararekin duen harreman profesionala eta soziala*
- **IKERLANAREN AURRETIK MUTRIKUKO EUSKARAREN GAINEKO PERTZEPZIO PERTSONALAK.**
- **IKERLANEAN LORTUTA EMAITZEN GAINEKO HAUSNARKETA.**
 - *Telefonozko inkestaren emaitzak*
 - *Adin tarteak*
 - *Generoa*
 - *Talde kulturalak eta elkarteak aipatutako emaitzak*
 - *Proposamenak*
 - *Parte hartzea*
- **ALDERAKETA PERTZEPZIO PERTSONALEN ETA IKERLANEKO EMAITZEN ARTEAN.**
- **EMAITZAK KONTUAN HARTUTA IDENTIFIKATU HERRIKO EUSKARAREN HUTSUNE NAGUSIAK.**
- **HUTSUNEAK KONTUAN HARTUTA ZEHAZTU HERRIKO EUSKARA PLAN BATEK AINTZAKOTZAT BEHARKO LITUZKEEN LEHEN LAU LAN ILDOAK.**
- **LAN ILDO BAKOITZEAN ZER EGIN AHALKO LITZATEKE?**

Eskernik asko zuen parte hartzezatik!!